

EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK NAFARROAN: KONTSUMO, EDUKI ETA ERABILGARRITASUNAREN GAINEKO HAUSNARKETA BAT

-Sakontze Egitasmoa-

HIZNET HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKO IKASTAROA

IKASLEA: DAVID ZIGANDA GOÑI

TUTOREA: JOSU AMEZAGA

IRUÑEA, 2016ko Uztaila

Eskerrik asko;

**Josuri bere pazientzia zein laguntzagatik eta nire antolamendu kaotikoa
jasateagatik;**

ordenagailua piztu eta inkesta bete zuten guztiei;

eta, azkenik, nire elkarrizketa 'sakonak' jasan (ez bada pairatu) dituztenei.

AURKIBIDEA

0-Laburpena.....	4
1-Sarrera.....	5
1.1 Helburuak.....	5
1.2 Testuingurua.....	6-10
2-Marko Teorikoa.....	11
2.1 Txepetxen ikaskuntzaren teoria.....	11-14
2.2 Euskararen erabilera eragiten duten faktoreak.....	15-17
2.3 Hizkuntza jarrerak eta hizkuntza ideologiak.....	18-20
2.4 Gizarte elebitasun desorekatua: euskara arriskuan.....	21-22
2.5 Hedabideak, identitateak, edukiak eta hautuak.....	23-26
2.6 Euskarazko komunikabideen egungo eta etorkizuneko erronkak.....	27-28
3. Metodologia.....	29
3.1 Metodologia Kuantitatiboa -Inkesta-.....	29-30
3.2 Metodologia Kualitatiboa -Adituekin Solasaldiak-.....	31
3.3 Lagina.....	32
4. Emaitzak.....	33
4.1 Inkestaren Emaitzak.....	33-38
4.2 Solasaldien Emaitzak.....	39-55
5. Ondorioak.....	56-59
6. Bibliografia.....	60-61
7. Eranskinak.....	62-74

0-LABURPENA

Ikerlan hau Nafarroako Foru Erkidegoan kokatzen da. Euskararen jaioterria den eskualde honetan euskaldunak euskarazko komunikabideekiko dituzten kontsumo ohiturak eta, batez ere, komunikabide horien eduki zein erabilgarritasunarekiko dauzkaten iritziak eta jarrerak ezagutu dira, bai eta ezaguera horren gainera hausnarketa plazaratu ere.

Hori gauzatzeko, posta elektronikoa bitarte ahalik eta euskaldun (oso) kopuru handienera zuzendutako inkesta martxan jarri da eta, horrez gain, aditu talde baten laguntzaz, ikerketaren muinak diren gaien inguruan horiek esandakoaz hausnartu da. Bukatzeko, aurrerantzean, euskarazko komunikabideek bere eguneroko jardunean aintzat hartu beharko lituzketen oinarrizko lan ildoak zehazten saiatu gara.

Hitz gakoak: euskarazko hedabideak, edukiak, erabilgarritasuna

1- SARRERA

Guztiok ezagutzen dugu azken hamarkadan komunikazioaren sektoreak mundu mailan bizi izan duen etengabeko eta geldiezina den eraldaketa, ez bada iraultza. Teknologia berrien eta interneten erabilera zabaldu izana errotik eta ziztu bizian aldatu du hedabideen ohiko negozioaren nondik norakoak. Komunikazioaren paradigma berri honi 2008. urtetik hona eragin duten (edo dugun?) krisi ekonomiko latza gehitu behar diogu; diru laguntzak zein kontsumitzaile kopurua murrizten joan diren heinean hainbat euskarazko hedabidek (beste askoren artean baino horiek ez dira ikerketa honetan aztergai) itxi behar izan dute (adibide gisa Ttipi-Ttapa Telebista eta Esan Erran Irratiaren kasuak Nafarroan).

Euskarazko komunikabideen sektorea ez da, euskara hizkuntza gisa ez den neurrian, sektore indartsua; izan ere, hizkuntza gutxitua dena erabilia ekoizten ditugu gutxitua den hiztun taldearentzat zuzendutako hedabideak (are gehiago Nafarroaren kasuan). Kontuak kontu, asko gara eta egun euskarak eskura duen hedabide sektorea inoiz baino handiagoa da eta horrek, nola ez, hizkuntzaren garapenari mesedegarria zaio. datuek argi diote: azken urteetan aurrera pausu sendoak eman ditugu euskararen ezagutzari dagokionez, ez hainbeste ordea horren erabileran.

Bai, euskara erabili edo ez erabiltzearen artean egon daitezkeen aldagaiak askotarikoak dira baino horien artean hedabideen osasuna nolakoa den erabakigarria izan daiteke. Herri gisa, hiztun komunitate gisa ezinbestekoa zaigu mundua, gizartea, errealitatea gurea den hizkuntzaren begien bitartez ezagutu eta azaltzea hedabideei dagokie. Ez hori bakarrik, euskaldunon komunitatearen giltzarria eta elkargunea izatea zein hizkuntzaren normalizaziorako urratsak ematea ere haien eginkizuna da.

1.1 HELBURUAK

Hedabideek hizkuntza gutxituaren (euskara gure kasuan) normalizazioaren alde egin dezaketen (eta egiten duten) lana behin azalduta (labur bada ere), euskarazko hedabide horien kontsumoarekiko, edukiekiko eta erabilgarritasunarekiko Nafarroako kontsumitzaileek dauzkaten iritziak, jarrerak, usteak zein hausnarketak bildu eta nahastuta, hedabide horien oraina zein etorkizuna ziurtatu eta sustatzeko beharrezkoak dituzten erronkak zeintzuk diren ezagutzea da ikerketa honen helburua; hots, euskarazko komunikabideen hutsak betetzeko argibideak lortzea, beti ere, horien 'euskalgintza' lana elikatu eta berma dadin.

1.2 TESTUINGURUA

Euskal Herria euskalduna izatea, edo, gutxienez, Euskal Herrian euskara sasoi onean bizitzea nahi badugu komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa zaigu. Izan ere, azken hamarkadetan, Euskal Herrian gizarte hedabide sare zabala sortu da: 1000 langile pasata gara sektorean¹ eta 714.136 lagun elebidunentzat² lanean dihardute eta ehunka mila pertsonarengana heltzen gara. Bai, esparru txikia da gurea baina, aldi berean, indartsua, osasuntsua eta ezinbestekoa (edo nahitaezkoa) euskaraz bizi nahi badugu.

Hezkuntza, administrazio publikoa eta hedabideak hizkuntza garapen zein sendotze prozesuan funtsezkoak diren zutabeak dira. Baliabideei dagokionez, EAE bederen, administrazioan zein hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadatan, bai eta euskarazko hedabide publikoetan ere³. Hedabide ez publikoetan, aldiz, laguntza eskasagoa izan da⁴.

Nafarroako kasua oso bestelako da eta horretan sakonduko dugu ikerlan honetan; euskararen jaioterria den Erreinu Zaharrean, egun, biztanleriaren %13,68 da elebiduna (1991n baino 3,7 puntu gehiago). Hazkunde hori, zorionez, 35 urtetik beherakoen artean gertatu da. Izan ere, Nafarroan (baita EAEn ere) 16 urtetik beherako gazteen artean dago elebidunen ehunekorik handiena⁵.

Euskararen erabilerari dagokionez, hots, hizkuntzaren normaltasun-mailari dagokionez, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %5,5 dira Nafarroan eta euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak %4,6. Kontuak kontu, eta nahiz eta ezagutza gora egin duen, euskararen erabileraren azken 20 urteotako bilakaera bere horretan dirau. Eremu formal zein seme-alabekiko erabilerak gora egin du, ez ordea etxean⁶.

Eremuka, euskara atzera egiten ari da euskaldunean. Bi puntu jaitsi da euskal hiztunen portzentajea, eta orain hogeitazko datuaren azpitik dago. %58,2 herritar dira euskaraz mintzatzeko gai eremu euskaldunean eta transmisioari zein erabilerari dagokionez etxea pisua galtzen ari da. Eremu misto zein ez euskaldunean, aldiz, ezagutzak gora egin du nabarmen baino erabilera (etxean bederen) beheranzko joerari eutsi dio azken urteetan⁷.

Datuek argi diote; Nafarroan euskararen egoera kezkagarria da, oso. Ezaguna zaigu 2015.urterarte UPNek euskararekiko izan duen jarrera (euskararen kontrako legeak edo euskalgintzarako beharrezkoak diren diru-laguntzak murrizten, besteak beste). Gainera, UPNek

1 Gipuzkoa Berritzen, "Herri ekimeneko euskal hedabideak" InnoBasque, 2012, <http://www.hekimen.eus/txostenak/>

2 Eusko Jaurlaritzak, "V. Mapa Soziolinguistikoa" 2011, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V%20MAPA-SOZIOLOGUISTIKOA%20baia_109_216.pdf

3 Irekia, 'EITBekin kontratu programa berria 2016-2019 aldirako', 2016ko otsailak 9, <http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/30764-nuevo-contrato-programa-eitb-2016-2019-consejo-gobierno-2016>

4 ARGIA, 'Jaurlaritzak euskal medioen finantziarioa izozteak ez du sektorea garatzen laguntzen', 2016ko martxoak 7, <http://www.argia.eus/albisteak/jaurlaritzak-euskal-medioen-finantziarioa-izozteak-ez-du-sektorea-garaten-laguntzen-hekimenen-ustez>

5 Gobierno de Navarra, 'Mapa Sociolingüístico de Navarra 2011', Gobierno de Navarra, 2011, http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/mapa-sociolingüístico-2011_informe-2.pdf

6 Ibid.

7 Goikoetxea Garikoitz, 'Eremu euskalduna makaltzen', BERRIA, 2015eko otsailak 4, http://www.berria.eus/paperekoa/1841/002/001/2015-02-04/eremu_euskalduna_makaltzen.htm

1986an ezarritako *Ley del Vascuence* legeak indarrean mantendu ditu zonifikazio linguistikoak PSN alderdiaren laguntzarekin.

Bai, 2015eko Otsailaren 2an Nafarroako Parlamentuak aipatu berri dugun legearen aldaketa bat onartu zuen; ordutik aurrera, D eredua eskari nahikoa (8 ikaslekoa) duen Nafarroako edozein herritan eskainiko da⁸. Ez hori bakarrik, 'Aldaketaren Gobernu' omen den horrek ere, ordura arte Nafarroako euskarazko komunikabideek pairatu zituzten finantziario publikoko hutsuneak, neurri batean bederen, bete ditu⁹. Nafarroan euskarazko hedabideen kontsumoaren inguruko datuen laburpena plazaratu baino lehen, euskarazko komunikabideen inguruko albiste on bat eta ez hain ona den beste bat igortzea ezinbestekoa zaigu:

1) *"Eukalerria Irratiari lizentzia ematen dion foru agindua argitaratu dute"*¹⁰. Bai, ia 30 urte luze pasa behar izan dira Iruñerriko euskaldunok irradi euskalduna legezko moduan entzun ahal izateko.

2) *"EITBk eten egingo du emisioa Nafarroan, zentroen zigilatzea ekiditeko"*¹¹. Lurreko telebista digitala martxan jarri zenetik EITBren emisio Nafarroan guztion ahotan (eta batzuen amets gaiztotan) egon den gaia izan da; egun, hitzok idazten ari naizen bitartean, ezin EITB etxean ikusi. Ikusteke zer gertatuko den.

Nafarroan euskarazko komunikabideak kontsumitzeko izan diren, dauden eta ziurrenik (eta zoritxarrez) egonen diren adibide bi besterik ez; gurea, dena den ez da Erreinu Zaharrean euskararen inguruan dauden auzien gora beheretan sakonduko duen ikerlana. Gurea, nafar euskaldunok euskarazko komunikabideekiko duten jarrera eta iritzia zein den ezagutzea da (oso zabal esanda). Gauzak horrela eta gure burua kokatze aldera, ikus dezagun ze nolako hedabide kontsumoa egiten den Nafarroan.

Horretarako eskura dugun iturri nagusia (nahiz eta beste zenbait erabili behar izan ditugun), CIESeN Nafarroako Gobernuarentzat egindako 'Barómetro Audiovisual de Navarra 2010'¹² da. Txostenak biltzen dituen estatistikak osatzeko erabili ziren irizpideen artean, ez dago herritarren hizkuntza-gaitasuna; ez hori bakarrik, euskarazko hedabideak ez aipatzeaz gain, 'beste autonomia erkidegoetako hedabideak' kategoria erabiltzen da nafarrak ez diren gainontzeko kate guztien kontsumoa biltzeko. Bai, ziurrenik Nafarroaz kanpoko kateen kontsumoaren gehiengoa EAEko

8 ARGIA, 'Nafarroa osora zabalduko dute D eredua', 2016ko urtarrilak 27, <http://www.argia.eus/albisteak/nafarroa-osora-zabalduko-dute-d-eredua>

9 Diario de Navarra, 'El gobierno prevé 1,5 millones para fomentar el euskera en adultos', 2015eko azaroak 25, http://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/mas_navarra/2015/11/25/gobierno_preve_millones_para_fomentar_euskera_adultos_340736_2061.html

10 ARGIA "Eukalerria Irratiari lizentzia ematen dion foru agindua argitaratu dute", 2016ko urtarrilak 8, <http://www.argia.eus/albisteak/eukalerria-irradiari-lizentzia-ematen-dion-foru-agindua-argitaratu-dute>

11 EITB.eus "EITBk eten egingo du emisioa Nafarroan, zentroen zigilatzea ekiditeko", 2016ko maiatzak 3, <http://www.eitb.eus/eu/albisteak/politika/osoa/4039508/etbk-eten-egingo-du-emisioa-nafarroan-zentroen-zigilatzea-ekiditeko/>


12 COAN, 'Barómetro Audiovisual de Navarra 2010', 2011, <http://lasonrisadelosciopreses.org/barometro-audiovisual-de-navarra-2010/>

kateena da baina ezin zehazki jakin horien barruan euskarazko kateek zer nolako harrera duten.

Gauzak horrela, eta arestian ikusi ditugun elebidun kopuruaren datuak aintzat hartuta, ulertzekoa da estatu mailako hedabideek (irratian, telebistan zein kazeta idaztietan) euskaldunak baino pisu handiagoa izatea Nafarroan. Ez hori bakarrik, Gorka Salces Alkaldek argitaratu berri duen doktore tesian¹³ primeran azaltzen den moduan, Nafarroaren kasuan:

"(...) argi antzematen da euskarazko hedabideen kontsumoa eremu geografiko bakoitzeko euskaldun proportzioaren arabera dela. Izan ere, zenbat eta hegoalderago joan orduan eta sarbide murriztagoa dute euskarazkoek. Hala, mendialdean oso emaitza onak lortzen dituzte, batez ere irratia kasuan; Iruñerrian, erdialdean eta Erriberan, ostera, euskarazkoek oso sarbide murrizta dute (...) guztietan irratiek gainontzeko formatuak baino arrakastatsuagoak dira, eta telebistak prentsak baino erabiltzaile proportzio handiagoa lortzen du".¹⁴

Grafikoa: Euskarazko komunikabideen merkatu kuota Nafarroan (%) komunikabide motaren eta eskualdearen arabera¹⁵.



13 Salcedo, Gorka, 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa' UPV/EHU, Leioa 2016,

<https://www.ehu.eus/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien.%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

14 Ibid. 508. orrialdea

15 Ibid. 509. orrialdea

Behin hori aztertuta, ondoko taulan¹⁶ euskarazko komunikabideen kontsumitzaileen kopurua euskaldun kopuruarekin alderatuko dugu hedabideen kontsumitzaile potentzialen kopurua zenbaterainokoa den ikusteko¹⁷:

	Kontsumitzaile Kopurua	Euskaldun Kopuruaren zenbatekoa (%) ¹⁸	Kontsumitzaile Potentzialak ¹⁹
IRRATIA			
Euskadi Irratia	13.500	%16,44	82.101 ²⁰
Gaztea	9.300	%11,32	82.101
Xorroxin Irratia	6.800 ²¹	%17,8	35.524 ²²
Euskalerrria Irratia	2.000	%4,05	49.376 ²³
TELEBISTA			
EITB1	14.000	%17,05	82.101
Xaloe TB	1.500	%1,83	82.101
KAZETAK			
Berria	5.000 ²⁴	%6,09	82.101
Argia	6.000 ²⁵	%7,3	82.101
Ttapi Ttapa	25.000 ²⁶	%70,37	35.524
Pulunpe	2.000 ²⁷	%77	2.600

Taulan ikusten den moduan, argi dago euskarazko hedabideen kontsumoa baduela handitzeko tarte ederra (Ttapi-Ttapa eta Pulunpe aldizkariak etxetik etxe banatzen dira eta horrek eragin zuzena dauka kontsumitzaile kopuruan). Orduan, zergatik ez ditugu euskaldunok euskarazko komunikabideak kontsumitzen? Zerk eragiten du hedabide zehatz bat aukeratzeko orduan? Non bilatu hautatze horren atzean dauden arrazoiak?

Galdera horiei guztiei erantzuteko pentsa genezake Nafarroako herritarrek komunikabideen aurrean dituzten iritzien, ohituren eta jarreraren inguruko datuak arakatzearekin nahikoa izanen dela

16 Datuen iturriak oso korapilatsuak dira, urteak eta kontsumitzaile kopuruaren datuak ez datoz bat; hortaz, taulan dauden datuak Nafarroako euskarazko hedabideen kontsumoaren hurbilketa bat baino ez dira.

17 Taulan biltzen diren datuak CIES (<http://www.ciesl.com/audienciamedios.htm>) dute iturburu baino, kasu honetan, iturria Gorka Salces Alcalde egindako 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa' izeneko Doktore - Tesia erabilita egin da, UPV-EHU, Leioa 2016, <https://www.ehu.eus/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien,%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

18 Lanketa propioa

19 Lanketa propioa

20 Nafarroako elebidun kopurua.

21 ERRAN, Eredu euskaldunak emititzen du <http://erran.eus/mendialdea/1444904155216>

22 Nafarroako eremu euskalduneko euskaldun kopurua

23 Nafarroako eremu mistoko euskaldun kopurua.

24 CIES, <http://www.lainformacion.es/FileUpload/C%CEDES%202015%20EN%20DDN.pdf>

25 ARGIA, <http://www.argia.eus/albiste/argiak-57000-irakurle-ditu-hego-euskal-herria-duela-urtebete-baino-7-gehiago>

26 ERRAN, Eredu euskaldunak eskuratzen da <http://erran.eus/mendialdea/1419259718001>

27 Ultzama eta Basaburuan banatzen da.

baina tankera horretako datuen eskasia agerikoa da, oso. Ez hori bakarrik; azken urteotan (inoiz baino abiadura azkarragoan gainera) ohitura komunikatiboak errotik ari dira aldatzen, eta horien nolakotasunak zein ondorioak aztertzea eta ulertzea ezinbestekoa bilakatu da sektorearen biziraupena bermatuko bada. Halaber, Nafarroan (baita Euskal Herri mailan ere) azken hamarkadetan jazotako eraldaketa soziolinguistikoek ere komunikabideei eragiten diete, eta horiek interpretatzeko gakoak eskuratzea nahitaezko bilakatu da euskarazko hedabideentzat.

Izan ere, (teorian bederen) euskaraz bizi ahal izateko, ezagutza eta borondateaz gain, ezinbestekoak dira baliabideak. Euskarazko eremuak behar ditugu. Hedabideen kasuan, gure herrietan, Euskal Herrian, Estatuan, Europan edo munduan ... gertatzen denaz informatuko gaituzten eta teknologia berriek eta Internetek ekarri dituzten aldaketetara egokitutako komunikabideak behar ditugu.

Komunikabideontzat ez dira garai onak (inoiz izan badira), krisia hitza nonahi entzuten da baina euskal gizarteak garai berriak bizi ditu, testuinguru egokia euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak emateko guztiok euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun. Ekin diezaiogun ba erantzunak bilatzeari!

2. MARKO TEORIKOA

Behin testuingurua ezagututa eta *kale* ikerketari hasiera eman aurretik, euskaldunek komunikabideen gainean dituzten iritzietan, ohituretan zein jarreretan eragiten duten aldagaietan murgildu diren lan teorikoen diskurtso ezberdinak plazaratuko ditugu. Lan hau gauzatzeko, eta nahiz eta bestelako iturriak eta artikulak ere erabiliko ditugun, ezin Gorka Salces Alcaldek egindako doktore tesia aipatu gabe utzi; izan ere, "*Euskaldunak Komunikabideen aurrean: iritzien, ohituren eta jarrearen azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa*"²⁸ izeneko lana, egun Euskal Herriko komunikabideen eta horien kontsumitzaileen arteko erlazioen nondik norakoaren errealitatea ezagutzeko eskura dugun lanik borobil eta osoena da. Aurrera.

2.1 TXEPETXEN IKASKUNTZAREN TEORIA

Gutxituak diren hizkuntzen hiztunen hizkuntza-hautuan eragiten duten faktoreak hiru dira: motibazioa, ezagutza eta erabilera. José María Sánchez Carrion -Txepetx- hizkuntzalariak plazaratu zuen 'Ikaskuntzaren teoriak' hiru ardatz horiek azpimarratzen ditu Euskal Herrian eragin handia izan duten lanetan. Egilearen arabera, hiru faktore horiek, hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan eragiteaz gain, gainontzeko jardueretan ere eragingo dute.²⁹


Txepetxek azaltzen digu motibazioa, ezagutza eta erabilera elkarri lotuta dauden faktoreak direla eta ontzi komunikatuak balira bezala irudikatzen ditu. Horrela, hiru ontziek elkar elikatzen dute, betiere nahikotasun-mailatik gorago baldin badaude; izan ere, ontziren bat ez bada nahikotasun-mailara iristen ontzien arteko konexioa hautsi egingo da. Muina? Hiru faktoreak zaindu beharrekoak dira.³⁰

28 Salces Alcalde, Gorka, '*Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarrearen azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa*', UPV-EHU, Leioa 2016, <https://www.ehu.es/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien,%20ohituren+eta+jarrearen+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

29 A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,i.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 261-268 orrialdeak, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

30 Ibid. 261-268 orrialdeak

Ondoko irudietan hizkuntzaren ikaskuntzan egileak bereizten dituen bi ibilbideak azalduko ditugu:

	<u>Hizkuntza ikasteko ibilbide naturala</u> Hautzaroan gertatzen da eta hizkuntzarekiko motibazioa, ezagutza eta erabilera berezkoak dira. Ingurukoekin komunikatzeko aukera izanda, bere beharrak ase eta berezko motibazioa indartuko da.³¹
	<u>Hizkuntza ikasteko ibilbide kulturala</u> Heldu batek hizkuntza ikasten duenean motibazioa, ezagutza eta erabilera induzituak dira. Ibilbidearen hasieran motibazioa dago (instrumentala zein integratzailea) eta ezagutza handitu ahala erabiltzeko aukera handiago da eta erabilerak motibazioa sustatzen du. Horrela, zirkuituak etengabe jarraitzen du funtzionatzen.³²

Egoera normal batean, hiztun batek A ibilbidea egin baina gero B ibilbidearekin osatuko du eskolaren eta ingurune kulturalaren bidez. Hori da hiztun osoak sortzeko modua. Prozesua, dena den, alderantzizkoa ere izan daiteke, hau da, lehendabizi B ibilbidea egitea eta gero naturaltasunez barneratzea, A ibilbidea. Horiek ere hiztun osoak izanen dira eta Nafarroaren kasuan, euskaldun berrien kopuruaren hazkundeak bigarren ibilbideari erantzuten dio.³³

Kontuak kontu, hau ez da formula matematikoa; izan ere, A ibilbidea burutu duen hiztunak nahikotasun maila orokorra erdiesteko hizkuntza horrekiko (euskararekiko) motibazioa garatu behar du, hots, kontzientzia linguistikoa. B ibilbidea burutu duenak, aldiz, erabilera naturalerako jauzia egin behar du hizkuntzari eusteko. Bestera esanda; A hiztunak motibazioari eusteko ikusi behar du bere hizkuntzarekin gizarte funtzio guztiak betetzeko gai dela, B hiztunak, oster, ez du motibazio kontrajarririk izan behar erabilera gihartsu mantendu nahi badu.³⁴

³¹ Ibid. 261-268 orrialdeak

³² Ibid. 261-268 orrialdeak

³³ Ibid. 261-268 orrialdeak

³⁴ Salces Alcalde, Gorka, 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrian: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa', UPV-EHU, Leioa 2016, 57. orrialdea, <https://www.ehu.eus/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrian+iritzien,%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

Txepetxen lanaren beste osagai oso garrantzitsua hizkuntzaren esparruen edo funtzioen teoria da. Esparruak ez dira toki fisikoak, burukoak baizik eta zuzenean lotzen dira hizkuntzak betetzen dituen funtzioekin. Jarraian hizkuntzaren funtzioak:

- Norberaren identitatea: nork bere burua talde baten barruan definitzeko beharra.
- Familia: funtzio hau besterik betetzen ez duten hizkuntzek desagertzeko arrisku larrian daude.
- Lana: globalizazioaren eraginez hizkuntza-funtzioen eskalan lana mailaz igotzen ari da.
- Herria: gizabanakoen mugikortasuna gero eta handiagoa da.
- Nazioa: Albaniera adibidez.
- Kultura: Lurraldetik kanpo irakasten eta ikasten diren hizkuntzak.
- Nazioartea: funtzio hau betetzen duena prestigiorik handiena dutenak dira (ingelesa kasu).³⁵

Nazio-mailara arteko funtzioak betetzen dituen hizkuntzak hizkuntza normalizatua izango da. Euskararen kasuan, beti ere goian zerrendatu ditugun funtzioen betetze maila kontuan hartuta, ezin baieztatu, inondik inora, normalizatua dagoen hizkuntza dela. Izan ere, eta Txepetxek azpimarratzen duen moduan, hizkuntzaren normalizazioa erdiesteko funtzioen inguruan aintzat hartzeko hiru puntu daude:

1. Hizkuntzaren prestigioa horrek betetzen dituen funtzioekin lotuta dago, guztiz.
2. Hizkuntza guztiak daude besteren batekin lehian.
3. Normalizazio prozesua ezegonkorra da, oso.³⁶

Horregatik guztiagatik, hizkuntzaren normalizaziorako bi ondorio ateratzen ditu egileak:

1. Hizkuntza guztiak lehian daude hizkuntza erabiltzeko orduan nazioarteko baldintzak aldatzen ez diren bitartean.
2. Hizkuntza batek (euskarak) hizkuntza nazionala behar du izan kultura hizkuntza gisa onartuta izan dadin.

Funtzioen afera honetaz gain, Txepetxeren iritziz hitzuna, hizkuntza eta gizartea batzen dituen unitate soziala, hau da, hizkuntza-komunitatea oso garrantzitsua da. Komunitate hau irudikatzeko orduan egitura zirkulu zentrokideak erabiltzen ditu egileak, erdian (gune sinbolikoan) hitzun osoak

35 A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 261-268 orrialdeak, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

36 Ibid. 261-268 orrialdeak

kokatuz; gune sinboliko hori zenbat eta gihartsuagoa izan, orduan eta errazagoa izanen da hizkuntzaren garapen osoa erdiestea. Aldiz, hizkuntza baten funtzioak beste hizkuntza batek hartzen dituenean hizkuntza-ordezkapena gauzatzen da eta horri aurre egiteko oso garrantzitsua da gune sinbolikoaren indarra, hori baita, hain zuzen ere, hizkuntzaren normalizaziorako gakoa.³⁷

Hizkuntza hautuan gizarte ingurunearen garrantziaz ari garela, ezin aurrera egin Iñaki Martínez de Luna soziologoak Txepetxen lanaren gainean egin zuen irakurketa kritikoa aipatu gabe. Soziolinguistikan aditua den Martínez de Lunaren iritziz, *“ingurune hurbilean hizkuntzak baldintza guztiak bete behar ditu (esparru formaletan erabili ahal izatea, lanabes kulturala ere izatea eta gizarte-estatusa lortzeko trabarik ez egitea) hiztun naturalak hizkuntza gutxitua albora ez dezan (...) aukeraketaren gakoa 'arau sozialetan' datza, hauek erabili beharreko kodea finkatzen baitute (...) hori dela eta, Txepetxen motibazioaren nahikotasun maila zeritzon horretara heltzeko, ingurune baldintzen gutxieneko maila ere txertatu beharko litzateke.”*³⁸ Hortaz, Ingurune hurbilak hizkuntzaren erabileran, ezagutzan eta motibazioan duen pisua erabakigarria da.

³⁷ Ibid. 261-268 orrialdeak

³⁸ Salces Alcalde, Gorka, 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa', UPV-EHU, Leioa 2016, 59. orrialdea, <https://www.ehu.eus/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien.%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

2.2 EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Bai, hizkuntzaren funtzioen betetze mailaren neurria berebiziko garrantzia dauka hizkuntzaren normalizazioa gauzatzeko. Halere, normalizazio hori, ikusi berri dugun moduan, euskararen erabileran errotzen da eta horretan eragiten duten faktoreak aztertzea premiazkoa dela deritzogu. Horien artean ondokoak gailentzen dira:

- Harreman-sareko elebidunen dentsitatea.
- Hizkuntza-gaitasun erlatiboa, hau da, hizkuntza batean edo bestean hitz egiteko erraztasun maila.³⁹

Aurreneko puntuari dagokionez, eta Jon Aizpuruak aipatzen duen moduan *"Euskararen erabileran dentsitateak duen eragina erabakigarria da. Etxean denek euskaraz dakitenean, nagusiki euskaraz hitz egiten da, baina nahikoa da etxeko norbaitek euskaraz ez jakitea familian nagusiki erdara erabiltzeko. Harreman sarearen eragina handiagoa da etxean lagunartean baino, beraz euskaldunen dentsitateak behera egiten duen neurrian, euskararen erabilera txikiagoa da etxean lagunartean baino"*.⁴⁰

Bigarren puntuarekin ere antzeko fenomeno gertatzen da; zenbat eta gaitasun erlatibo txikiagoa izan, orduan eta gutxiago erabiliko dugu euskara. Nafarroaren kasuan euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen diren euskal elebidunak %25 dira; elebidun orekatuen multzoa %27,1 da eta, azkenik, erdal elebidunen taldea dago. Hauek erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen dira eta Euskadin gertatzen den moduan, Nafarroan ere multzorik handiena dira. Ezin ahaztu euskal eta erdal elebidunen arteko ezberdintasunik esanguratsuena lehen hizkuntzarena dela. Bai, euskal elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira eta erdal elebidun gehienak euskaldun berriak.⁴¹

Azken urteotako euskaldunen hazkundea hezkuntza-sistemaren garapenari zor diogu neurri handi batean. Hortaz, euskaldun berriak gero eta gehiago dira, batez ere gazteen artean, eta eskolan euskara ikasi duten gazte horien gehiengoak familia zein gertuko komunitatea erdaldunak dauzkate. Honen ondorioa? Euskaldunen kolektiboa errotik aldatzea; *"lehen hizkuntza euskara izan duen euskaldunak, gune euskaldunetan bizi eta familia eta lagunartea euskaldunak dituenak gero eta pisu txikiagoa du. Horren orde, euskaldun berrien taldea ari da nagusitzen, hau da, lehen hizkuntza euskara ez duena, familia eta lagunartea euskaldunak ez dituen eta gune erdaldunetan bizi dena"*.⁴² Egitate honek, nola ez, hizketarako zein hizkuntza hautatzen den baldintzatzeaz gain, euskarazko komunikabideekiko euskaldunok dauzkagun erlazioetan ere eragiten du.

³⁹ Aizpuru, Jon. "Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa", HIZNET -Hizkuntza Plangintza Ikastaroa-, 2016, 19. orrialdea

⁴⁰ Ibid, 19. orrialdea

⁴¹ Ibid, 20. orrialdea

⁴² Ibid, 20. orrialdea

Puntu hau ixteko, euskararen biziraupena ziurtatzeko biderik naturalena, eraginkorrena eta merkeena dena, hots, familia bidezko transmisioa, azaleratu behar dago. Familia bidezko transmisioa umeak gurasoengandik jaso duen hizkuntzari (edo hizkuntzei) deritzo. Izan ere, bikotekideen hizkuntza-gaitasunak guztiz baldintzatzen baitu seme-alabei transmititzen zaien hizkuntza. Datu estatistikoen arabera, gurasoak elebidunak direnean Nafarroako seme-alaben %71,2k euskara soilik jasotzen dute. Bikotekideetako batek euskaraz ez dakienena, oster, gehienek erdara soilik transmititzen dute (%70,9).⁴³ Honek, lehen aipatu dugun moduan, hizkuntza hautuan zein komunikabideekiko harremanetan eragina izanen du.

Puntu honi amaiera eman baino lehen, hizkuntza baten erabilera gako den bizindar etnolinguistiko erlatiboaren kontzeptua mahai gaineratu nahi dugu; Quebecen sortu zen teoria honen bitartez ikertu nahi da *"nola eta zergatik hizkuntza batzuk besteak baino botere handiagoak diren, zergatik batzuek irauten duten eta beste batzuek ez."*⁴⁴ Jarraian kontzeptuaren definizioa:

*"Talde arteko egoeretan talde bati izaki kolektibo desberdinen eta aktibo gisa jokatzeko aukera handiagoa ematen diona (...) beraz, zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa izan talde batek, aukera handiagoak ditu hizkuntza - komunitate gisa bizirik irauteko egoera elebidun edo eleaniztun batean; eta alderantziz, zenbat eta bizindar etnolinguistiko txikiagoa, orduan eta aukera gehiago talde desberdin gisa jokatzeari lagatzeko".*⁴⁵

Bizindar etnolinguistikoaren teoria hornitzen duten faktore objektiboak hauek dira: faktore demografikoak (hiztun kopurua, lurraldearen banaketa), babes instituzionala (zenbaterainoko ordezkapena erakundeetan) eta estatusa (prestigioarekin erlazionatuta). Hauei bizindar subjektiboaren kontzeptua gehitu behar zaie, hots, gizarteak bere bizindar etnolinguistikoaz duen irudikapenaren nondik norakoak. Izan ere, onartua dago zenbat eta bizindar subjektiboa positiboagoa eduki talde batek, orduan eta aukera handiagoa duela handitzeko eta irauteko.⁴⁶

Euskal Herrian kontzeptu honen inguruan egin diren bi lan⁴⁷ nagusien ondorioak berreskuratuz, ondoko biak azpimarratuko ditugu:

1. Zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa, orduan eta euskararen erabilera altuagoa.

⁴³ Ibid, 22.orrialdea

⁴⁴ A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jauriaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 195. orrialdea, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/arqitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

⁴⁵ Ibid. 195.orrialdea

⁴⁶ Ibid.196. orrialdea

⁴⁷ Arratibel, Nekane; Azurmendi, María-Jose; García Iñaki 2001. Menpeko Hizkuntzen bizi-kemena. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea / Usarralde, Ibon; Martínez de Luna, Iñaki. 2004. Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistiko: Andoingo, Arrasateko, Bergarako, Hernaniko eta Lasarte-Oriako Udalerrak. Andoain: soziolinguistika Klusterra.

Bizindarra nolakoa, erabilera halakoa.

2. Bizindarra neurri batean sendotzen denean, erabilera ere nabarmenago igotzen da.⁴⁸

Nafarroaren bizindar etnolinguistikoaren inguruan jakin, badakigu, asko dugula hobetzeko. Ez hori bakarrik, egun bizindar hori sasoian mantentzen dituzten eskualdeak murrizten diren bitartean, eremu erdaldunetan bizi diren euskaldunen kopurua etengabe hazten doa eta horrek Nafarroako euskaldunen bizindarra neurtu, ikertu, elikatu, sustatu eta sendotzeko bitartekoen gaineko hausnarketa sakona egitera bideratzen gaitu.

⁴⁸ A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 197. orrialdea, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

2.3 HIZKUNTZA JARRERAK ETA HIZKUNTZA IDEOLOGIAK

Ingurune hurbilaren egitura eta hiztunon hizkuntza gaitasun erlatiboa euskararen erabilera baldintzatzen dutela argi dago. Dena den, bi aldagai horiek ez dira erabileran (hautuan) eragiten duten bakarrak; esparru horretan hizkuntza jarrerak zein hizkuntza ideologiak asko dute esateko.

Gizakiok edozein gertakariren aurrean hautemate ezberdinak izaten ditugu. Gutariko bakoitzak errealitatea jaso, interpretatu eta ondoren baloratu egiten du. Bestalde, gizakiak barne-irrikak, helburuak zein desioak ditu eta horiek, hautemateekin batera, motibazioen eragileak dira. Hizkuntzari dagokionez, bi multzotan bana ditzakegu motibazioak: integratzaileak eta instrumentalak. Lehenengoan, hiztun-taldearen kide, partaide izateko nahia dago, hau da, sentimendu identitarioa. Bigarrenean, aldiz, hizkuntza helburu jakin bat lortzeko bitartekoa da (lana edo komertzioa kasu).⁴⁹ Azter dezagun kontua sakonago.

Ukipenezko egoeretan dauden hizkuntzen kasuan bi dimentsio hauen esangura eta garrantzia areagotu egiten da. Jarrera integratzaileek ikuspegi soziala eta pertsonen arteko elkarrenganako eragina islatzen dituzte. Horiek lotura zuzena dute hizkuntza horrekiko atxikimenduari edo hiztun talde horren kultura-adierazpenekiko identifikazio-mailarekin. Komunitate elebakarretan ez bezala, elebitasun egoeretan gatazka sor daiteke identitateen arteko tentsioak direla medio. Jarrera instrumentalek, oster, ikuspegi pragmatikoa adierazten dute; hizkuntza bat onura ekonomikoarekin edo gizarte mailan promozio aukerak zabaltzearekin lotzen da.⁵⁰

Jarrerek jokamoldea bideratzen duten neurrian, hizkuntzaren aldekoak direnak erabileran, ikas-prozesuan zein inguruan jarduteko moduan eragin zuzena izango dute. Hau aintzat hartuta ezin ahaztu hautemate, jarrera eta motibazioen eraketan garrantzi handia daukala testuinguruak edo gizarteak (familiak, inguru hurbilak, eskolak, komunikabideak ...). Egoera elebidunetan (gurean) jarrerek garrantzi handiagoa hartzen dute; izan ere, hizkuntzaren biziraupena jokoan egon daiteke. Motibazio indartsuak eta aldeko jarrerak funtsezkoak izango dira hizkuntza-komunitateak bere hizkuntzari eutsi diezaion.⁵¹

Nafarroaren kasuan, euskaraz dakitenek hizkuntza hori ez erabiltzera bultzatzen dituzten arrazoen artean ondokoak biltzen dira: ingurune hurbila erdalduna izatea, ingurunearen presioa edo euskarak ematen duen marka ekidin nahi izatea. Bai, hala da, Nafarroan euskaraz hitz egiteak marka nabarmenagoa uzten du, hizkuntzarekiko konpromiso hori zentzu politikoan ulertzeko joera

⁴⁹ A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly, I.Larrea, L.Martínez, B.Uranga, P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 75-77 orrialdeak, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

⁵⁰ Ibid. 212.orrialdea

⁵¹ Ibid. 214.orrialdea

baitago.⁵²

Azken datu bat: Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aldekoak %37,7 dira. Kontra daudenen kopurua oso antzekoa da %34,5. Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %88 Nafarroan. Erdaldun elebazarren artean, aldiz, aldekoak nabarmen gutxiago dira: %28.⁵³

Euskal Herri mailan bi dira hizkuntzen inguruan nagusitzen diren iritziak. Euskaldunen kasuan hizkuntzek norberaren nortasuna zehazteko balio handia dute; erdaldunentzat, berriz, hizkuntzek balio komunikatiboa dute batez ere.⁵⁴ Jone Miren Hernández sozio-linguistak eginiko ondoko taulan⁵⁵ Euskal Herriko gazteen jarreraren ikerketaren ondorioak biltzen dira:

	EUSKARAREN ALDEKO JARRERAK	EUSKARAREN AURKAKO JARRERAK
LEHEN	- Euskararen ezagutza: gure hizkuntza da - Euskararen erabilera: • Hurbileko komunitatean integratzeko ballagarria da. • Egunerokotasunean. - Euskararen inguruko motibazioa: izaera eta izateko erari lotuta dago.	- Euskararen ezagutza: existitzen ez den hizkuntza da. - Euskararen erabilera: hizkuntza mugatua da. - Euskararen motibazioa: baliorik gabeko hizkuntza da.
ORAIN	- Euskararen ezagutza: ikuspuntu pragmatikoa, identitarioa, kulturala du. - Euskararen erabilera: pragmatikoa, militantea, egoera eta funtzio zehatzel lotuta dago. - Euskararen inguruko motibazioa: kulturala, politikoa, gizabanakoa, komunitarioa, pragmatikoa du.	- Euskararen ezagutza: inposatua, onartua, errealtatean kokatua da. - Euskararen erabilera: funtzio gutxiko hizkuntza da, eskolan ikasitakoa, gustukoa ez dena, erabiltzen ez dena, nahikoa ikasten ez dena... - Euskararen inguruko motibazioak: biolentzia eta politikari lotua dagoen hizkuntza da, arraroa, <i>sentitzen</i> ez den hizkuntza...

Jarrerak ez ezik, hizkuntzak, bere dimentsio praktikoaz gain badu gaitasuna bere gainean diskurtsoak eta irudiak sortzeko eta zabaltzeko. Euskal Herrian, egun, euskararen inguruko diskurtsoei dagokionez ondoko ikuspegia da onartua eta adostua dena: euskara eta gizartearen arteko harremana hizkuntza plangintza eta normalizazioaren begiradapean ikustea. Euskarak aurrera egin nahi badu, ezinbestekoa zaio gizarte kontzientzu zabala lortzea hizkuntza politikaren

⁵² Ibid. 216.orrialdea

⁵³ Aizpurua, Jon. "Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa", HIZNET -Hizkuntza Plangintza Ikastaroa-, 2016, 24. orrialdea

⁵⁴ A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 192 orrialdea, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

⁵⁵ Ibid. 215.orrialdea

inguruan. Izan ere, Euskal Herriko gizarte oso politizatu eta dikotomizatua da (are gehiago gure kasuan, Nafarroan) eta horrek eragin zuzena izan du euskararen inguruko diskurtsoetan. Hau horrela izanda ere, azken urteotan euskarak politizazio maila hori gainditu beharraren aldeko ahotsak agertu dira:⁵⁶

"Abertzale eta ez-abertzaleek partekatzen duten ondasun bat da euskara. Hala izan beharko luke, baino historikoki urte luzeetan ez da izan, eta hori da gure desgrazia handienetako bat (...) Euskaalgintzak ez du atorramendu onik arazoa dikotomikoki planteatzen bada (...) Aurrerantzean euskaalgintzak berak hartu behar du hitza, diskurtso autonomo propioa landu behar du, berak markatu behar ditu estrategiak, berak hartu behar du inizatiba gizarte eragilean eta gertakarien aurrean." (Joan Mari Torrealdai)⁵⁷ Torrealdairen hitzak, Nafarroako kasuan bederen, inoiz baino beharrezkoak ditugu.

⁵⁶ Hernández, Jone Miren. "Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak", HIZNET -Hizkuntza Plangintza Ikastaroa-, 2016, 27. orrialdea
⁵⁷ Ibid, 27. orrialdea

2.4 GIZARTE ELEBITASUN DESOREKATUA: EUSKARA ARRISKUAN

Euskara eta gaztelania (bereziki) aspalditik ukipenean bizi izan diren hizkuntzak dira eta horren ondorioa Euskal Herrian elebitasun sozialaren 'fenomenoa' errotu izana daukagu. Halere, hitz muga horren ordeztu diglosia da gehien hedatu den terminoa. Fishman soziolinguista estatubatuarrek landu zuen bereziki kontzeptu hau; haren hitzetan, diglosia *"gizarte batean ematen den hizkuntza baten baino gehiagoren erabilera da zeinean hizkuntza horiek esparru eta funtzio ezberdinetarako erabiltzen diren (...) diglosiarik gabe -hizkuntza funtzioen banaketarik gabe- orekatutako elebitasun sozial egonkorra ezinezkoa da (...) izan ere, gizarteak bi hizkuntzetatik bat bazter utziko du, funtzio multzo batentzat eta berarentzat bi hizkuntza behar ez dituelako."*⁵⁸

Kontuak kontu, eta nahiz eta Fishmanen teoriak onarpen zabala jaso, kontzeptu horrek diglosia-egoerek sortzen dituzten gatazkak txikiesten zituela estimatzen zuten askok (soziolinguista katalanek kasu). Egun (Txepetxek plazaratu zituen hiru diglosia-mailak aintzat hartuta), Euskal Herrian bizi dugun diglosia egoera totala da (are gehiago Nafarroan); hau da, euskarak funtzio guztiak ez ditu betetzen baina erdarak bai, euskararen lurraldean eta kanpoan ere bai. Azken hau diglosia glotofagikoa deitu du egileak prozesuaren bukaera herri hizkuntzaren desagertzea delako.⁵⁹

Esan dugun moduan, Fishmanen irudiko diglosia fenomeno egonkortua izan daiteke bi hizkuntzen artean diferentziazio funtzionala baldin badago. Hori, zorionez edo zoritxarrez, teorian baino ez da gauzatzen (Euskal Herriari dagokionez bederen). Gizartean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direnean lehian dira ez dituzten funtzioak bereganatzeko edo dituztenak indartzeko. Horra hor hizkuntza-gatazka, bi hizkuntzaren artean erabilera eremuak eta funtzio sozialak eskuratzeko lehia.⁶⁰

Lehian dauden funtzio horien artean (besteak beste nazioartekoa, ofiziala, lan hizkuntza edo kultura hizkuntza), hizkuntza gutxituen kasuan garrantzitsuenak Familia - Hizkuntzaren funtzioa da, hau izan baita mendez mendeko euskararen transmisioa segurtatu duena. Euskarak egun badu presentzia bestelako funtzioetan ere baina, familia hizkuntza euskara izatea egonkortzen eta indartzen ez den heinean, beti egonen gara amildegitik gertu, behin betiko ordezkapenetik gertu.⁶¹

Ordezkapen horren aurrean, hizkuntza-normalizazio nozioa gutxitu egoeran dagoen hizkuntza

⁵⁸ A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritzaren eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 154 orrialdea, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

⁵⁹ Ibid, 157.orrialdea

⁶⁰ Ibid, 164.orrialdea

⁶¹ Ibid. 164.orrialdea

egoera horretatik ateratzea adierazteko erabiltzen den kontzeptua da; bestera esanda, gutxitua den hizkuntza gizarte esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesuan datza normalizazioa. Prozesu horretan hedabideek asko dute esateko.⁶²

⁶² Ibid, 164. orrialdea

2.5 HEDABIDEAK, IDENTITATEAK, EDUKIAK ETA HAUTUAK

Asko dira hizkuntza gutxituetako hiztunek hedabideekin egiten dituzten hautuen atzean identitatea dagoela defendatzen duten autoreak. Hori ukatu barik, faktore gehiago gehitu beharko genituzke eragiketa horri. Izan ere, gaur egungo euskaldun askorentzat euskara tresna bat besterik ez da, ez du bere nortasuna, identitatea adierazten. Ez dago, hortaz, euskal munduaren kide izateko bide bakar bat eta egungo gizarte modernoetan pertsona bakoitzak hainbat nortasun izan ditzake.⁶³

Hori da, hain zuzen ere, gaur egungo gizartearen ezaugarrietako bat; nork bere burua eta identitatea definitzeko moduak zein bitartekoak biderkatu egin dira. Gauzak horrela, eta errealitate berri honetara egokitzeko xedearekin, komunikabideen eskaintza gero eta anitzagoa da. Teknologia berriek, gainera, komunikabideen kontsumoa errotik irauli du, bai eta indibidualagoa bihurtu ere. Hortaz gain, gehien kontsumitzen diren edukiak (Euskal Herrian barne) ez dira geureak, ez badira beste herrialdeetan egiten direnen bertsioak. 'Inperialismo kultural' honen aurrean ez da batere erraza herri-hizkuntza-kultura gutxituentzat (gurea) bereari eustea.⁶⁴

Masa-kultura globalizatuaren aroa omen den honetan, hedabideak dira errealitatea interpretatzeko, ulertzeko, deskribatzeko beharrezkoak ditugun markoen saltzaileak. Ondorioz, identitatea eraikitze orduan beharrezkoak ditugun elementuak, aldagaiak nondik eskuratzen ditugun mundu sinboliko indibidualaren eratze prozesua baldintzatuko du. Homogeneizazioa da kulturen zein gizartearen nagusitu den eredua; Estatuak indarra galdu dute euren herritarren identitatea egituratzeko orduan eta Estaturik gabeko nazioetan beharrian identitarioak asetzeko mekanismo aproposak zeintzuk diren oraindik ez dugu argi. Horien artean, nonbait, hizkuntza (euskara) herritarren partaidetza egituratzeko tresna aproposa dela egile askok defendatzen dute; izan ere, *"nork bere hizkuntza erabiltzeak errealitatea interpretatzeko modu berezia eta propioa sortzeko bidea litzateke"*.⁶⁵

Hortaz gain, hizkuntzak taldearen ikurrak, zeinuak hedatu eta hiztun-komunitatearen kide diren partaideen arteko harremanak lotzen ditu. Era berean, talde identitatearen eraikuntzan komunikabideek duten papera garrantzitsua dela onar dezakegu, horiek baitira hizkuntza erabiltzen dutenen talde nortasuna sendotzeko. Dena den, eta arestian aipatu dugun moduan, komunikabideen edukiak besteen kopia hutsak edo 'bertsioak' baldin badira, nola lagun dezakete identitate bereiziaren (euskalduna gure kasuan) egituraketan?⁶⁶

⁶³ Salces Alcalde, Gorka, 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa', UPV-EHU, Leioa 2016, 135-161 orrialdeak, <https://www.ehu.es/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien.%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

⁶⁴ Ibid, 135-161. orrialdeak

⁶⁵ Salces, Gorka. Ibidem 162. orrialdea

⁶⁶ Ibid. 131- 162. orrialdeak

Lehenik eta behin, eta edukien 'izaeraren' inguruko hausnarketa gerorako utzita, ondoko ideia azpimarratu nahi dugu; hiztunak beharrezkoak ditu bere hizkuntzan funtzio guztiak bete ahal izateko aukera emango dioten hedabideak. Bestera esanda, hizkuntza gutxituetako hedabideek hizkuntza menperatzaileen eskaintzarekin lehia daitekeen eskaintza zabaldu behar dute: genero eta formatu guztietako edukiak eskura izan behar ditu hiztunak gehiengoaren hedabideengana jo ez dezan. Ez hori bakarrik, hedabide mota guztiak eskura izateak ere berebiziko garrantzia dauka hizkuntza batek aurrera egin dezan. Izan ere, hizkuntza gutxituak ez badu hedabide marko osatua eskaintzen, zerk galaraziko gaitu 'gurea' alboratzera 'bestearen' mesedetan?⁶⁷

Bai, plazaratu berri dugun galderak proposatzen duen egoera gertagarria da baino horrek ezin du ukatu azken urteetan euskal hedabideek bizi izan duten garapen itzela. Gaur egun inoiz baino aniztasun gehiago dago euskarazko komunikabideetan (prentsa, idatzian, ikus entzunezkoetan zein interneteko atarietan): instituzionalak, tokian tokikoak, nazionalak, kulturalak, enpresenak etab. Batzuk egonkortuak eta beste asko diru laguntzen menpekoak. Asko dago dena den egiteko eta oraindik hutsuneak hamaika dira baina asko aurreratu da eta hori pozik egoteko modukoa da.⁶⁸

Sar gaitezen jada edukien 'izaeraren' esparruan. Zeintzuk dira euskarazko komunikabideek jorratu behar dituzten gaiak? Iritziak hamaika dira baina horien artean bat da gehien entzuten dena: euskarazko komunikabideek tokiko gaietatik hasita, nazioarteko gaietarainoko estaldura informatiboa eskaini behar dute hiztunak berea ez den hizkuntzara informazio horren bila joan ez daitezen. Aitor Zuberogoitiak bere doktoretza tesian azaldu zuen moduan: *"Euskara bertsolaritzara, folkloreari edo hizkuntzari berari buruz jarduteko baliabide mugatua baino ez bada, euskaldun berri potentzialek bizkor demonio osatuko dute sekuentzia: gauza garrantzitsuak esaten dira, ergo euskara osagarria, anekdotikoa da, betelanerako baino ez da baliagarri, ergo euskaraz ez dago gune bizi eta albiste sortzailerik, ergo zertarako euskara ikasi?"*⁶⁹

Zulo horretatik ateratzeko, Zuberogoitiak berak ondoko irtenbidea proposatu zuen: euskal esparru komunikatiboa euskal hizkuntza komunitatetik abiatu beharko da, ez soilik hizkuntzaren aldetik, albisteak hiztun komunitatearen ikuspuntutik ere idatzi behar dira. Sustraiak lapurtzen digun mundu global honen aurrean, euskarazko komunikabideek identitate bat eskaini diezaioke hiztun komunitateari.⁷⁰

Gorka Salces Alcaldek bere doktore tesian bildu zuen informazio anitzaren artean, Finlandian

⁶⁷ Ibid. 173-240. orrialdeak

⁶⁸ Ibid. 173-240. orrialdeak

⁶⁹ Ibid. 188. orrialdea

⁷⁰ Ibid. 188. orrialdea

hiztunaren eta beronek hedabideetan egiten duen hizkuntza hautuaren arteko harremanaren nondik norakoen egin zen ikerketaren berri ematen digu; ikerketa horren arabera (Euskal Herria mailan ere aplika daitekeena), hiru faktorek baldintzatzen dute hiztunon hautua:

1. Dimentsio pertsonala: Bi hizkuntzetako zein erabiltzeko ohitura duen.
2. Harreman dimentsioa: Familia elebakarra edo elebiduna den.
3. Dimentsio espaziala: Komunitatea elebiduna den, edo bi hizkuntzako zein gailentzen den inguru hurbilean.⁷¹

Bai, hizkuntza identitatearen muineko elementua da, ez bakarria ordea eta gainontzeko identitateek ere (ideologia politikoa edo erlijioa kasu) zer esan handia dute hedabideen kontsumoan. Gainera, eta orain arte bildu dugun informazioa ikusita, argi dago komunikabideak kontsumitzeko orduan identitatearen aldagaia ez dela erabakigarria; hizkuntza gutxiuaren egoera, hiztunek hizkuntzarekin duten harremana eta hedabideen ohiko ezaugarriak (formatua, edukiak, euskarriak) gure hautua baldintzatzen dute. Hauekin batera, ezin aipatu gabe utzi informazioaren esparru geografikoa eta hizkera-mota.

Hedabideek argitara ematen duten informazioen esparru geografikoa zer esan handia dauka komunikabideen hautuan; ez, ez gara Euskal Herriaren esparruaz ari, tokian tokiko esparruaz hari gara (herrikoa, gertukoa, auzokoa). Esparru hauek kontuan hartzen dituzten egunkariak dira publikoaren erantzunik onena lortzen dutenak. Nafarroaren kasuan *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias de Navarra* dira egitate horren lekuko eta, zoritxarrez, biak gaztelaniaz sortzen dira (nahiz eta euskarari folklore edo euskal kulturarekin zer ikusia duten zenbait gai plazaratzen dituzten).⁷²

Komunikabideek erabiltzen duten hizkerari dagokionez bi ohar: batetik, erregistro zein hizkeraren nolakotasunak kontsumitzaileekiko komunikazioa baldintzatzen duela argi dago; bestetik, erabiltzen den euskalki edo hizkerak hartzailearengan eragin dezakeen identifikazio maila hautuan garrantzitsua izan daiteke.⁷³ Euskalkiek Nafarroan duten zabalera txikia kontuan izanda, ez dute elebidunen hautuan EAEko elebidunen hautuan izan dezakeen eragin berdina izango.

Azpiatal honi amaiera emateko, euskarazko komunikabideen lerrotze politikoaren auziaren inguruan mintzatuko gara; ez, lerrotze politikoarena ez da soilik euskarazko komunikabideei leporatzen zaien kontua, ez bada mundu mailako hedabide guztiek jasan behar duten ikurra.

⁷¹ Ibid. 192. orrialdea

⁷² Ibid. 218. orrialdea

⁷³ Ibid. 219. orrialdea

Euskarazkoei dagokionez, neurri handi batean ezker abertzaleko alderdiekin lerrotuta daudela leporatzen zaie eta, horrek, beste euskaltzale asko hedabide horiengandik urrunduko lituzke. Kontuak kontu, eta Jon Sarasuak hainbat lanetan adierazi duen moduan, prentsa nazionalak hiztunen arteko funtsezkoa den lotura funtzio kualitatiboa betetzen du eta, hori dela medio, euskarazkoek uko egin beharko liokete alderdi baten alde egiteari.⁷⁴

⁷⁴ Ibid. 225. orrialdea

2.6 EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN EGUNGO ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Azken hamarkadetan euskarazko hedabideek aurrerapauso handiak eman dituzte; egun, Euskal Herria mailan 250 hedabide baino gehiago ari dira euskaraz informatzen (horietatik 20 bat inguru Nafarroan⁷⁵). Alderdi kualitatiboari dagokionez, lanean diharduten kazetarien prestakuntza askoz hobe dela ere aipatu behar da. Gainera, euskararen ezagutza handitu den heinean, kontsumitzaileen merkatu potentziala ere zabaldu da. Txikia eta etengabeko 'hizkuntza gatazkan' murgilduta dagoen gure hizkuntzarentzat, euskarazko komunikabideen ekarpena hizkuntza normalizatzeko, gure nortasuna indartzeko, herritarrak informatzeko edo iritzi publikoa osatzeko ezinbestekoa da.

Urteak dira krisialdi ekonomiko ospetsua gure artean dela eta gainontzeko esparruetan bezala, hedabideen berezko zailtasunak areagotu eta hizkuntza gutxituen komunikabideen biziraupena kolokan jarritz. Ez hori bakarrik, globalizazioa, Internet eta gizartearen aldaketak hedabide guztietan eragin handia izaten ari dira. Internet informazio iturri gisa erabiltzea hazkunde itzela izan du eta teknologia berriek publiko, hartzaileen zatiketa eragin dute. Azpimarratzekoa ere gazteek komunikabideekiko duten harremana guztiz ezberdina dela; mehatxu (edo aukera) hauei aurre egiteko, euskarazko hedabideek euren kontsumitzaileen masa kritikoa babesteko eta zabaltzeko ahalegindu beharko dira.

Euskarazko komunikabideen formatuak, produktuak edo teknologiak berritu eta gizarte eta kontsumo modu berri honi egokitzeko lanean sakondu behar dugu eta, horretarako, teknologia berriak etsai baino lagun izan daitezke, baita eredu ekonomiko berriak sortzeko ere. Berrikuntza hori, dena den, eragile guztien inplikazioa eskatzen du (pribatuak, gizartekoak zein publikoak). Halere, diru laguntzen bidez babestutako euskarazko komunikabideen egitura ez da gomendagarriena. Merkatu eta diru laguntzen arteko oreka lortu behar dugu; izan ere, enpresa sendoak eta lehiakorrak bultzatzeko autonomia ekonomikoa gakoa da.

Globalizazioak gure gizartean eragin duen, eragiten duen eta eragingo duen indarra nolakoa eta zenbaterainokoa izan den, denaren eta izango den inguruko hausnarketa prozesu amaigabean murgilduta dihardugu.

Globalizazioak, dagoeneko, mendebaldeko herrialdeetan nagusi diren pentsamenduak, eredu kulturalak eta kontsumo irizpideak homogeneizatu eta mundu zabalean barna txertatu ditu. Hori ezin ukatu. Prozesu hori guztia hizkuntzen mailan ere gauzatzen hasia da eta hizkuntza gutxituak

⁷⁵ Patxi, Iñigo. "Nafarroako Euskal Komunikabideak". <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/69493.pdf>

dira egitate horren lehen biktimak.

Dena den, ezkorra den alderdi honek, nahi gabe, gutxitutako hizkuntzentzako globalizazioaren alderdi baikorrei mesede egiten diela deritzot. Nazioarteko hizkuntzen zabaltzearen aurrean, gutxituak diren hizkuntzen aldeko jarrera integratzailea indarra hartuko du. Herri identitateak erasotzen dituen globalizazioari aurre egiteko, identitatearen ardatza den berezko hizkuntza sendotzeko eta indartzeko herri zein norbanako ekimenak ugaltzea ekarriko du. Ez hori bakarrik, globalizazioak eskaintzen dizkigun baliabideei esker, ekimen horiek inoiz baino modu bateratuagoan eta eraginkorragoan gauzatzeko aukera izanen dugu.

Aukera horien artean sare sozialen ahalmena aipatzea ezinbestekoa zaigu; egun, baliabide teknologikoek bi norabideko komunikazioa errealitate bihurtuz, erabiltzaileek hedabideetan parte hartzeko aukera bereganatu dute. Horrek, hizkuntzaren estatusa eta hiztun-komunitatearen auto-estimua hobetzeaz gain, hiztunon batasuna, elkarrekiko gertutasuna sendotzeko eta bertan dauden iritzi zein ideiak partekatzeko aukera esleitzen digu.⁷⁶

⁷⁶ Salces Alcalde, Gorka, 'Euskaldunak Komunikabideen Aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa', UPV-EHU, Leioa 2016, 251. orrialdea, <https://www.ehu.eus/documents/10136/5355903/Euskaldunak+komunikabideen+aurrean+iritzien.%20ohituren+eta+jarreraren+azterketa+kualitatibo+eta+kuantitatiboa.pdf>

3. METODOLOGIA

Edozein ikerlan martxan jartzeko orduan erabiliko den metodologia zehaztea oso kontu garrantzitsua da. Izan ere, metodologiaz hitz egiterakoan bi mota nagusi aipatzen dira: batetik kuantitatiboa eta bestetik kualitatiboa. Bai, bakoitzak berezko ikuspegi eta planteamendua dauka baino horrek ez du esan nahi bateragarriak ez direnik. Aitzitik, maiz bi metodologiaren arteko uztarketa gure ikerlanaren helburua erdiesteko biderik egokien dela baieztatzen da.⁷⁷

Ikerketa lan honen kasuan ere, uztarketa hori gauzatuko da; metodologia kuantitatiboari dagokionez, posta elektronikoa bitarte egin den inkesta erabili da informazioa biltzeko eta, kualitatiboari dagokionez, euskalgintzan zein soziologia arloan lanean diharduten adituekin solasaldiak antolatu dira. Horrela, Nafarroako euskaldunek euskarazko komunikabideekiko dauzkaten iritzi zein jarrerak aztertu eta horien inguruko hausnarketa plazaratzeko dugu.

3.1 METODOLOGIA KUANTITATIBOA

Metodologia honen ezaugarrietako bat behaketa da, estatistikoki frogatuak izan behar diren datuak hain zuzen ere. Kuantitatiboak egile bakoitzaren interesen arabera emaitzak lor ditzaketen azterbideak dira eta horien artean inkesta da ezagunena.⁷⁸

Inkestarekin lekukoari, ikertzaileak zenbait galdera zuzendu eta erantzunka eskatuko dizkio. Lanketa tresna hau baliagarria izan daiteke errealitate sozialaren 'argazki' moduko bat osatu nahi bada. Halere, interpretazioak eta diskurtsoen arrazoiketak bildu eta aztertzeko orduan ez da tresnarik egokiena.⁷⁹

Ikerketa honetarako posta elektronikoa bidezko inkesta erabili da. Hauosatzen duten galderak bi motatakoak izan daitezke: irekiak edo itxiak. Galdera itxiak gehiagotan erabiltzen dira; izan ere, irekiekin biltzen den informazio subjektiboa 'kuantifikatzeko' orduan ikertzaileak arazoak izan ditzake. Kontuak kontu, beti ere gai zehatz baten inguruko galdera irekiak badira, ikertzaileak horiek erabil ditzake bildu nahi duen informazioa eskuratzeko. Gure kasuan, nahiz eta galdera itxiak gehiago izan, biak erabili dira inkesta egituratzeko orduan.⁸⁰

Posta elektronikoa bidezko inkestak zenbait abantaila dauzka, esaterako:

77 A.Zarraga, J.Coyos, J.Hernández, L.Joly,I.Larrea,L.Martínez,B.Uranga,P.Bilbao. "Soziolinguistika eskuliburua", Eusko Jaurlaritz eta Soziolinguistika Klusterra, 2010, 287-310 orrialdeak

78 Ibid. 287-310 orrialdeak

79 Ibid. 287-310 orrialdeak

80 Ibid. 287-310 orrialdeak

- Kale lanaren kostua izugarri murrizten da.
- Inkesta burutzeko behar den denbora zein langile kopuruaren beharra izugarri gutxitzen da.
- Geografikoki sakabanatuta dagoen pertsonengana iristeko bidea izugarri errazten du.
- Saiakerak errepikatu daitezke.

Bai eta alde negatiborik ere:

- Estaldura akatsak ohikoak dira.
- Elkarrizketatuak ez du inongo laguntzarik galderei erantzuteko.
- Traba fisikoak egon daitezke (konexio arazoak kasu).⁸¹

Gure posta bidezko inkestan faktore soziolinguistiko gisa aintzat hartu diren irizpideak adina, sexua, ikasketa maila, lanbidea eta etxean zein kalean erabiltzen duten hizkuntza izan dira. Aldagai soziolinguistikoak baliogarriak izanen badira, batetik, aldez aurretik ondo hausnartuak behar dute izan eta, bestetik, lekuko egokiei zuzendu behar zatzaizkie. Azken irizpide honen kasuan, neurri handi batean bederen, ez da ikertzailearen esku egonen, inkesta, izatez, ausazkoa den lekukoen hautaketan oinarritzen delako.⁸²

Arestian aipatu dugun moduan, gure inkestak (Ikusi A Eranskina) galdera irekiak zein itxiak tartekatzen ditu, bigarrengoei presentzia handiagoa badute ere. Hasteko euskarazko komunikabideen kontsumo ohituren inguruko galderak plazaratzen dira; bigarrenik, komunikabide horien edukien inguruko iritziak ezagutzeko galderak datoz; hirugarrenik, euskarazko hedabideen erabilgarritasunaren nondik norakoen inguruko informazioa biltzeko galderak eta, bukatzeko, komunikabideen etorkizunarekiko iradokizunak egitera gonbidatzen zaie elkarrizketatuei.⁸³

⁸¹ Ibid. 287-310 orrialdeak

⁸² Ibid.287-310 orrialdeak

⁸³ Ibid.287-310 orrialdeak

3.2 METODOLOGIA KUALITATIBOA

Metodologia kualitatiboaren helburua datuak biltzea da, objektiboak zein subjektiboak; kuantitatiboa ez bezala, kualitatiboa gertakari eta diskurtsoetan oinarritzen da. Helburua ez gai baten inguruan luze eta zabal aritzea, ez bada gaiaren muina ezagutzea. Hori lortzeko, parte hartzaileei konfiantza, hurbiltasuna eman beharko die ikertzaileak.⁸⁴

Bi dira kontuan hartu beharreko aldagaiak: lehenengoa, egoera aktiboa sortzea, parte hartzea errazten duena; bestea, datuen bilketarako unea irekia eta mugarik gabekoa behar duela izan. Izan ere, ikertzaileak egoera modu txukunena aurkeztu eta gauzatu behar du, artisau batek egingo lukeen moduan. Ez hori bakarrik, ikertzailearen beraren esku hartzea -injerentzia- ahalik eta txikiena izan behar da, hots, elkarrizketa bideratzea dagokio, baloraziorik egin barik. Halere, metodologia kualitatiboak ikerketa bakoitzean lortu nahi diren xedeen arabera bideak hartu, jorratzeko aukera eskaintzen dio ikertzaileari.⁸⁵

Ikerketa honetan, elkarrizketa sakona da informazioa biltzeko bitartekoa. Eztabaida sakonari dagokionez, metodologia kualitatiboan oso teknika hedatua dela azpimarratu behar da; bi subjektuen arteko aurrez aurreko interakzioa da eta emaitza positiboak lortzeko komunikaziorako estrategiak, bideak eta baldintzak garatu behar dira. Izan ere, oso teknika egokia da pertsonen ikuspegiak jasotzeko bai eta informazio konplexua hobeto ezagutzeko ere. Halere, teknika hau erabilita lortu ditugun emaitzak orokortzea oso lan zaila da, ez bada ezinezkoa. Gure helburua, zorionez, ez da hori; gu esanahien bila goaz eta horregatik gure gidoia irekia eta malgua izateaz gain, elkarrizketatuei askatasuna emanen diegu nahi dituzten desbiderapen guztiak egiteko.⁸⁶

Elkarrizketen bitartez elkarrizketatuek euskarazko komunikabideen aurrean dauzkaten iritziak, ohiturak, jarrerak eta ikuspuntuak argitaratzea xede izanda, ondoko puntuetan oinarritzen diren elkarrizketak (B eranskina) egituratu ditugu (nahiz eta oso irekiak eta malguak izan):

- Elkarrizketatuak eta euskararen erabilera.
- Elkarrizketatuak eta euskarazko komunikabideen kontsumoa.
- Elkarrizketatuak eta euskarazko komunikabideen edukiak.
- Elkarrizketatuak eta euskarazko komunikabideen erabilgarritasuna.
- Elkarrizketatuak euskarazko komunikabideen etorkizunaren aurrean.

⁸⁴ Ibid. 287-310 orrialdeak

⁸⁵ Ibid. 287-310 orrialdeak

⁸⁶ Ibid. 287-310 orrialdeak

3.3 LAGINA

Deskribatu berri ditugun metodologiak aurrera eramateko ondoko laginak erabili ditugu:

1. Metodologia Kuantitatiboa -Posta elektronikoa bidezko inkesta-: Nahiz eta inkesta bat esanguratsua, baliogarria izateko toki bakoitzeko populazioarekin proportzionala izan behar duen (eta gure kasuan, saiatuta ere, ez da horrela izan), lortu ditugun emaitzak gure ikerketa objektuen gaineko argazki orokorra egiteko baliogarriak izan direla deritzogu. Izan ere, inkestari erantzun dioten gehiengoak euskalgintza zein euskal munduarekin lotura estua dutenez, Nafarroako euskaldunon gehiengoaren iritzi zein ikuspuntuen adierazgarriak izan daitezkeen emaitzak lortu ditugu. Gure inkesta 98 pertsonei bidali zaie eta horietatik guztira 46 inkesta bete izan dira.
2. Metodologia Kualitatiboa -elkarriketa sakona-: teknika kualitatibo hau erabiltzearen arrazoia hirukoitza da; batetik, inkesten bidez lortutako emaitzen gaineko hausnarketa egitea, bestetik, adituen (euskara teknikariak, soziologoak, irakasleak etab) parte hartzearekin euskarazko komunikabideen etorkizuneko erronkei aurre egiteko lan ildoak zehaztea eta, bukatzeko, aditu horiek gaiari buruz dituzten ikuspegi eta jarrerak sakontasunez ezagutzea.

Gure elkarriketatuen profilak euskal mundua edo euskalgintzarekin nolabaiteko lotura duten pertsonak izan dira: batetik, euskarazko komunikabideetan urte askoz lan egin duten bi kazetari nafar; bestetik, soziologia eta gizarte parte hartzean -euskalgintzaren mugimenduan oso aktiboa- aditua den teknikaria eta, bukatzeko, 'Reyno de los Vascones' delakoan aditua den historialaria eta euskalgintzan eta euskararen kulturaren aldeko lanean urte asko daramatzaten irakaslea eta euskara teknikaria. Guztien artean hiruei elkarriketa grabatu egin zaie, beste hiruei, aldiz, transkribatu. Elkarriketatuen oinarritzko datuak ezagutzeko ikusi B1 eranskina.

4. EMAITZAK

Metodologiaren atalean azaldu dugun moduan, ikerlan honetan datuak jasotzeko moduan metodologia bat baino gehiago erabili ditugu. Hori dela eta, atal honetan, erabilitako teknika bakoitzari dagozkion datuak ezberdinak izanen dira, zabalenetik hasita (posta elektronikoa bidezko inkesta) zehatzenera (elkarrizketa sakonak).

Posta elektronikoa bidezko inkestan 46 pertsonak parte hartu dute; elkarrizketa sakonetan, aldiz, 6 izan dira ikerketa honetan parte hartu duten adituak. Inkestatuen eta adituen artean bildu dugun informazioa marko teorikoan jasotako 'teoriarekin' alderatu ostean, ea zer nolako emaitzak eta ondorioak lortzen ditugun.

4.1 INKESTEN EMAITZAK

Posta bidezko inkestan galdera itxiak zein irekiak tartekatu dira euskarazko komunikabideen kontsumo, eduki zein erabilgarritasunaren aurrean inkestatuek dauzkaten iritzia ezagutzeko. Parte hartzaileen adin tarteei dagokionez, %60,9 18-29 urte bitartekoak izan dira, %21,7 51-90 urte bitartekoak eta gainontzekoak, %17,4, 30-50 urte bitartekoak. Sexuari dagokionez banaketa oso orekatua izan da, %52,2 gizonezkoak eta %47,8 emakumezkoak. Ikasketa maila esparruan, aldiz, goi mailako ikasketak burutu dituzten pertsonak nagusitu dira %95,7 (irakasleak, euskara teknikariak, kazetariak, liburuzainak etab). Orain bai, hemen galderen emaitzak:

1. Etxean erabiltzen duzun hizkuntza?

Etxean euskara erabiltzen duen kopurua %36,4 da, ia hamarretik lauk. Gainontzekoek (%63,6) gaztelania erabiltzen bere etxeko egunerokotasunean.

2. Etxetik kanpo gehien erabiltzen duzun hizkuntza?

Etxetik kanpo euskara erabiltzen dutenen kopurua ere oso antzekoa da, %39,1. Hamarretik lauk euskaraz mintzatzen dira.

3. Nafarroan eskura daitezkeen euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura duzu?

Kasu honetan %87 euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura duela adierazi du. Inkesten datuak banan-banan aztertuta, ondokoa ikusi dugu: etxean zein kalean euskaraz mintzatzen direnek euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura dute.

4. Zein(tzuk)?

Argia, ETB1, Zazpi Haizetara, Ttipi-Ttapa, Nafarroako Hitza, Topatu, Gaztea edo Aizu moduko hedabideak aipatuak izan dira baino horien gainetik, kontsumituenak, dudarik gabe, Berria, Euskadi Irratia eta Euskalerrria Irratia dira.

5. Zein maiztasunarekin kontsumitzen d(it)uzu?

Inkestatuen %75 egunero kontsumitzen ditu euskarazko komunikabideak, %10 asteburuetan eta %15 astean behin edo bitan. 3.galderan gertatu den moduan, kasu honetan ere etxean zein kalean euskara erabiltzen dutenek egunero kontsumitzen dituzte euskarazko komunikabideak.

6. Gaztelaniazko hedabideekin alderatuta, zein kontsumitzen duzu gehien?

Hemen gaztelaniazkoak garaile atertzen dira (%54,5); euskarazkoak gehiago kontsumitzen dutenak %13,6 dira eta biak neurri berdinean kontsumitzen dituztenak %31,8 dira. Bai, berriz ere, euskaraz bizi direnak bigarren eta hirugarren taldeetan murgiltzen dira.

7. Zertarako erabiltzen dituzu euskarazko komunikabideak?

Informazioa eta entretenimendua eskuratzeko euskarazko hedabideetara hurbiltzen dira inkestatuen %63,6; gainontzekoek, %36,4, informazioa dute xede nagusi.

8. Nolako edukiak kontsumitzen dituzu?

Politika eta bere gora beherak dira gainontzeko gaien artean nagusitzen diren edukiak (%50); atzetik eta neurri berdinean kultura eta gizarte kontuak datoz (biak %25).

9. Informazioaren esparru geografikoari dagokionez, zer kontsumitzen duzu gehien?

Euskal Herria mailako informazioa da gehien kontsumitzen dena (%78,3); ostean, eta tarte handiarekin, tokian tokiko informazioa eta nazioarteko informazioa (biak %8,7) eta azkenik estatu mailako informazioa (%4,3).

10. Euskarazko komunikabideetan biltzen de informazioetan gertutasunak zenbaterainoko garrantzia du?

Inkestatuen artean inork ez du 'inolakoa ez' edo 'eskasa' aipatu; izan ere, informazioaren gertutasunaren garrantzia 'handia' da %27,3arentzat, 'oso handia' %36,4arentzat eta 'erabatekoa' %27,3arentzat.

11. Euskarazko hedabideak euskal mundura mugatu behar?

Hedabideen mugei dagokionez oso argi dute inkestatuek; %81 euskarazko komunikabideak euskal mundura mugatu beharraren aurka daude, gainontzeko %19 alde.

12. Euskarazko hedabideak Euskal Herriko mugen barruko informaziora mugatu behar dira?

Oraingoan are argiago dute erantzuna gure inkestatuek; %95 euskarazko komunikabideek Euskal Herriko mugak gainditu behar dituztela deritzote. Inkestatuen %5 ez dute horren argi.

13. Gaiei dagokionez, zein duzu nahiago?

Gai sakonak dira gure inkestatuen artean interes gehien pizten dituzten informazioak (%65); arinak %18,2 eta espezializatuak %13,6.

14. Euskarazko hedabideen eskaintza anitza, orotarikoa, guztion gustuetara egokitua da?

Komunikabideen eskaintzari dagokionez, iritziek banaketa handiago dute; inkestatuen %40,9 eskaintzan 'asko dagoela hobetzeko' deritzote, %18,2 ez dela egokia dio eta %36,4 eskaintza aproposa eta nahikoa dela uste du.

15. Ze eduki mota faltan sumatzen dituzu?

Galdera honetan erantzunak orotarikoak dira baina lau dira gehien errepikatzen diren ideiak: batetik, kalitatezkoak eta berezkoak dira edukiak sortzea, *"ez gainerako hizkuntzatan ematen diren zaborrak birsortzea"*; bestetik, sakonagoak eta hausnarketara bideratuta dauden eduki gehiago ekoiztea; hirugarrenik, Nafarroako tokiko informazioa zabaltzea eta, bukatzeko, nazioarteko informazioari arreta gehiago jartzea (nonbait euskaldunok mundua euskaldunon begietatik azaldua izatea nahi dugu).

16. Noizbait ezin izan duzu gustuko duzun edukiren bat euskaraz kontsumitu?

Bai, gure inkestatuen %61,9 ezin izan du gustuko dituen edukiak euskaraz kontsumitu; 33,3%, aldiz, beti aurkitzen du nahi duen produktu mediatikoa euskaraz.

17. Euskarazko telebista kateen edukiak egokiak dira? Zergatik?

Salbuespenak salbuespen, inkestatuen irudiko euskarazko telebista kateen eskaintza kaxkarra da, kalitate gutxikoa eta beti albokokoak egiten duenari erne dagoena, hots, 'kopiatu' egiten duena. Halere, inkestatu askok euskarazko telebista (ETB1) Nafarroan ikusteko eskubidea lapurtu digutela ere aldarrikatu dute.

18. Euskarazko irratien edukiak egokiak dira? Zergatik?

Uhinen etxean kontua bestelakoa da, izan ere, euskarazko irratia oso harrera ona dute Nafarroako euskaldunen artean, bai bere edukien zein eskaintzari dagokionez bai eta erakusten duten pluraltasunari dagokionez ere.

19. Euskarazko kazeten edukiak egokiak dira? Zergatik?

Papera euskarri duten hedabideen kasuan aldeko zein kontrako argudioen arteko oreka dago; aldekoen artean gertuko informazioa nagusitu da, kontrakoen artean kazeten ageriko lerrotze politikoa eta eskaintza txikia nagusitu dira.

20. Euskarazko komunikabideen ildo ideologikoa agerikoa da?

Komunikabideen lerrotze ideologikoaren inguruan inkestak argi dute; %17,4 oso agerikoa dela dio, %43,5 agerikoa, %26,1 nahikoa dela dio eta %8,7, berriz, ez dela oso agerikoa defendatzen du.

21. Sinesgarriak dira?

Hedabideei beti leporatu izan zaien sinesgarritasun falta ez da euskarazkoei (gure inkestak gehiengoaren arabera bederen) kalte egiten dien iritzia; izan ere, %13 eta %60,9 dira, hurrenez hurren, euskarazko hedabideak erabat eta oso sinesgarriak direla esaten dutenak. %17,4 nahiko sinesgarriak direla deritzote eta, azkenik, %4,3entzat ez dira oso sinesgarriak.

22. Euskal Herriko gizartearen pluraltasuna erakusten dute?

Pluraltasunari dagokionez, aldiz, iritzia aldentuta daude; %30entzat bai, euskarazko hedabideek Euskal herriko gizartearen pluraltasuna erakusten dute, erdia baino gehiagorentzat (%52,2), berriz, erakusten den pluraltasuna ez da osoa eta %13 dira pluraltasun hori eskasa dela deritzotenak.

23. Euskal hiztunon pluraltasuna erakusten dute?

Euskaldunon pluraltasunari dagokionez ere iritzia oso antzekoak dira; %30entzat euskaldunon pluraltasuna islatzen da, %50entzat pluraltasun horren isla ez da nahikoa eta %13,6entzat eskasa da.

24. Euskarazko komunikabideetan alderdi identitarioari garrantzi gehiegi ematen zaio?

Euskal identitatea (hori zertan datzan oraindik zehazteke dago) gora behera, %30entzat hedabideetan horri ematen zaion garrantzia oso handia da, beste %30entzat, aldiz, ez zaio garrantzi gehiegirik ematen eta gainontzeko %30entzat garrantzi hori nahikoa da.

25. Euskal Herriko ideologia aniztasuna erakusten dute?

Ideologiaren inguruan hitz egiterakoan pluraltasunarekin ikusi ditugun antzeko emaitzak lortzen ditugu; %30,4 dira ideologia aniztasun hori erakusten dutenaren defendatzaileak, %17,4 erakusten ez dutenarenak eta, azkenik, %47,8entzat ideologia aniztasuna ez da bere osotasunean erakusten.

26. Abertzaletasunari garrantzi gehiegi ematen zaio?

Hemen iritzien muturreko joerak nagusitu dira; %39,1entzat euskarazko komunikabideetan garrantzi gehiegi ematen zaio abertzaletasunari, %43,4 kontrakoa uste du eta %13 erdiko bideari eutsi diote, hots, garrantzia nahikoa da.

27. Hauetatik, zein da euskarazko hedabideen baliorik garrantzitsuena?

Argi dago: gure inkestaren irudiko euskarazko komunikabideen baliorik handiena integratzailea da (%73). Gainontzekoentzat (%27), berriz, instrumentala.

28. Zergatik kontsumitzen dituzu?

Orain ere balio integratzailea da nagusitzen dena (%40,9) baino neurri txikiagoan; balio instrumentala atzetik dator (%27,3) eta, bukatzeko, militantziari loturiko arrazoiak (%18,2).

29. Euskaldunak bateratzeko -giltzarri gisa- bitarteko onak dira?

Aurreko bi galderen erantzunak ikusita ulertzekoa da inkestaren %52,2rentzat euskarazko komunikabideak euskaldunak bateratzeko garrantzitsuak izatea. %13rentzat ezinbestekoa dira eta gainontzekoek (%30,4) ez dute 'giltzarri bitartekaritza' hori horren argi ikusten.

30. Euskal hiztunen komunitatearentzat beharrezkoak dira?

Bai, ezinbestekoak dira gure komunitatearentzat. Hori diote bederen inkestaren %65,2. ezinbestekoa agian ez baino oso garrantzitsua dela uste dutenak %21,7 dira. Azkenik, eta neurri txikiagoan (%8,7) euskal hiztunen komunitatearentzat garrantzi gutxi dutenaren aldekoak daude.

31. Euskararen egoeraren normalizaziorako beharrezkoak dira?

Nahiz eta oraindik normalizazio horren nondik norakoak oso argi ez ikusi, inkestaren %90 dira euskarazko komunikabideak hizkuntzaren normalizaziorako gako, ezinbestekoak direla uste dutenak; gainontzeko %10 ezinbestekoak agian ez baino lagungarriak direla uste dute.

32. Etorkizunari begira kontsumoak zer egingo du?

Nahiko baikor agertu dira inkestatuak. %40,9 kontsumoak gora egingo duela uste dute, %31,8 mantendu eta %18,2 txikituko dela uste dute.

33. Euskarazko komunikabideen gaitasun ekonomikoa nahikoa dela uste duzu?

Ez, inondik inora. Hori diote inkestatuen %95,5. Euskarazko komunikabideen diru gabezien jabe dira Nafarroako euskaldunak.

34. Nork bermatu beharko luke gaitasun hori?

Erakunde publikoei dagokie diru hutsune horiek betetzea; hori da gure inkestatuen %64,5 uste dutena. %30,7 kontsumitzaileen ardura dela deritzote. Bitxia inork eragile pribatuen parte hartzea aipatu ez izana.

Laburpen gisa

Posta elektronikoa bidezko inkestan bildutako informazioa ondoko puntuetan labur dezakegu: Inkestatuek gaztelania da etxean zein kalean gehien erabiltzen duten hizkuntza; halere, euskarazko komunikabideak egunero kontsumitzeko ohitura dute. Horien artean Berria, Euskadi Irratia eta Euskalerrria Irratia dira gehien kontsumitzen direnak, nahiz eta gaztelaniazkoak gehiago kontsumitzen diren. Zertarako? Informatzeko eta entretenitzeko erabiltzen dira eta edukien artean Euskal Herri mailako politikaren gora beherak dira interes gehien pizten duten gaiak. Informazioen gertutasuna ere oso garrantzitsua da kontsumitzaileentzat; halere, euskarazko hedabideek ez dute zertan euskara eta Euskal Herriarekin lotura duten gaiak jorratzeari mugatu. Gai horiek gainera, zenbat eta sakonagoak orduan eta hobe.

Kontuak kontu eskaintzari dagokionez asko dago hobetzeke; izan ere, askotan ezin dira gustuko edukiak euskaraz kontsumitu. Ez hori bakarrik, euskarazko hedabideen edukiak berezkoak izatea (ez besteen kopia hutsak) nahitaezkoztat jotzen da. Komunikabideen artean irratia da arrakasta gehien daukanak, telebista, aldiz, kritikatuena da. Gure komunikabideen ildo ideologikoa agerikoa izanda eta erakusten duten pluraltasuna osoa izan barik ere, sinesgarriak dira eta eremu identitarioari zein abertzaleari ez omen zaie hainbesteko garrantzirik ematen.

Euskarazko komunikabideen baliorik handiena? Integratzailea, dudarik gabe. Hortaz gain, euskaldunontzat giltzarri bitartekoak dira, bai eta hiztun komunitatearentzat beharrezkoak ere. Hizkuntzaren normalizaziori dagokionez ezinbestekoak, etorkizunean gehiago kontsumituko dira, egun duten gaitasun ekonomikoa oso eskasa da eta gabezia horren gaineko ardura erakunde

publikoek hatu behar dute.

4.2 ELKARRIZKETEN EMAITZAK

Adituekin egin diren elkarrizketa sakonetan gauza asko eta orotarikoak esan dira. Tankera horretako solasaldiek eremu pertsonaletik asko dute eta esandakoa laburbiltzeko gai zehatz batzuen inguruan esan, kritikatu, goraipatu eta hausnartu direnak plazaratuko dira: kontsumoa, edukiak eta erabilgarritasuna.

Elkarrizketen mamia hiru zatitan banatu da (ikusi B eranskina); halere, eta nahiz eta berriketaldiaren nondik norakoak gidoia bitarte zehaztuta egon, eztabaidek askotariko bideei eutsi izan diete. Izan ere, gertuko pertsonak dira guztiak baina baita euskaldunak, adimentsuak eta kritikoak ere. Horrexegatik aukeratu ditugu, guztion artean aberasgarria bezain erabilgarria izan daitezkeen hausnarketak eta ondorioak biltzeko.

"Gaztetan egun bizi dugun egoera pentsa ezina zen, lokura bat (...) ikaragarria da nola egin duten aurrera euskarazko komunikabideek azken hamarkadetan (...) eta kontrako eraso asko sufrituta gainera ... pentsa zazu boterea, Nafarroako boterea diot, politikoa bereziki alde izan bagenu (...) oso harro egoteko modukoa da ... bai, gainera guk egin dugu, euskaldunok, herritarrok ez beste inork eta hori ere behar bezala baloratu behar da (...) bai, arazo asko dauzkate euskarazko komunikabideek baina baita aintzat hartzeko moduko lorpenak. Hori ezin dugu ahaztu eta etorkizunari baikor egin behar diogu aurre. Askok lortu dugu eta." (Bingen Amadoz).

Gure analisi kritikoari hasiera emateko beharrezko aipua dela deritzogu. Izan ere, euskal hiztunok askotan gure burua behar baino gehiago zigortzen dugu oraindik ez dugulako 'dena' lortu eta askotan ahaztu egiten zaigu zenbaterainoko aurrera pausoak eman ditugun guztion artean. Orain, jarrera positiboa behin barneratuta, ekin diezaiogun kontsumoaren inguruko erantzunen nondik norakoak laburtzeari.

Kontsumoa

"Lanean zein nire gertuko harremanetan oso gutxitan erabiltzen dut euskara ... ez dut aukerarik baino euskarazko komunikabideak egunero kontsumitzen ditut. Berria eta irratia batez ere, Euskalerrria Irratia diot. Gustatzen zait informazioa euskaldunon ahotik jasotzea (...) Bueno, gaztelaniazkoak ere egunero kontsumitzen ditut, webean batez ere eta bai, euskarazkoekin konparatuta neurri handiagoan. Ez dakit, bueno eskaintza zabalagoa da erdaldunetan, nire

intereseko gai gehiago daude". (Mikel Uharte)

"Nire gurasoekin kenduta ia egun osoa euskaldunen artean ematen dut, euskaraz noski (...) bai, egunero kontsumitzen ditut euskarazko komunikabideak ... Berria, Euskalerrria Irratia eta gutxiago Euskadi Irratia. Erdaldunak ere kontsumitzen ditut baino gutxiago, nahiago dut informazioa euskaraz jaso, gertukoagoa da." (Jokin Irigoien)

"Lanean beti euskaraz nabil eta etxean edo lagunekin segun norekin nagoen. Kotxez asko ibiltzen naizenez Euskadi Irratia asko entzuten dut. Bestela ezer gutxi, bueno, bidaiatzea izugarri gustatzen zaidanez Zazpi Haizetara astekaria deboratzen dut baina ez da euskaraz delako baizik eta bidaien ingurukoa delako. Egia esan nahiago dut Diario de Noticias de Navarra irakurri Nafarroaren azken albisteak ezagutzeko ... Berrian adibidez ez da Nafarroaren informazio asko plazaratzen." (Marta Txamorro)

"Euskaraz bizi naizela esan dezaket, nahiz eta herri erdaldunean bizi. Nire familia eta lagunak euskaldunak dira eta lanean ere euskaraz egiten dut lan (...) Bai, egunero kontsumitzen ditut euskarazko hedabideak, Berria eta Euskalerrria Irratia batez ere ... eta Euskadi Irratia iruñeritik ateratzen naizenean. Erdaldunak gehiago kontsumitzen ditut halere, eduki gehiago eta aniztasun gehiago dagoelako." (Oskar Goldaraz)

"Euskara barra barra erabiltzen dut, etxean eta lagun artean, baita ere lanean nengoenean. Halere Euskadi Irratia kenduta ez dut bestelako euskarazko hedabiderik kontsumitzen. Ez zaizkit oso erakargarriak iruditzen, bereziki telebista. Halere euskarazko hedabideek egun arte lortu dutena ikaragarria izan da, harro egoteko modukoa. Lotsa pixkat ematen dit esateak baino nahiago Diario de Noticias moduko kazeta Nafarroako egunerokotasuna eta berriak ezagutzeko." (Bingen Amadoz).

"Lanean eta kalean segun norekin erabiltzen dut euskara. Udaletxetik euskararen aldeko gauza asko egiten gabilta baino nik aitortu behar dut ez ditudala euskarazko komunikabideak kontsumitzen. ETB1 baino soilik kirolak ikusteko, pilota edo saskibaloia batez ere. Nafarroako berriak eta informazio irakurtzeko osoagoak iruditzen zaizkit hedabide erdaldunak. Eta pena ematen dit esateak, benetan." (Oihan Mendo).

Kontsumoaren inguruan gure elkarriketatuek eman dituzten erantzuna ondoko puntuetan labur ditzakegu:

- Berria eta, batez ere, Irratiak (Euskalerrria Irratia eta Euskadi Irratia hurrenez hurren) dira

gehien kontsumitzen diren euskarazko hedabideak. Euskarazko telebista soilik bi elkarriketatuk aipatu du eta kirola ikusteko besterik ez dute erabiltzen.

- Orokorrean erdaldunak diren hedabideak gehiago kontsumitzen dira; eskaintza anitzagoa omen dute, bai eta Nafarroaren gaurkotasunaren gaineko informazio gehiago.
- Hedabide mota guztien artean irratia da balorazio onena jasotzen duena.
- Nafarroako eguneroko gaurkotasuna -gertutasuna- ezagutzeko hedabide erdaldunak gehiago kontsumitzen dira (*Diario de Noticias de Navarra* kasu).
- Etxean zein kalean euskara erabiltzea edo ez erabiltzea ez omen da erabakigarria euskarazko komunikabideak kontsumitzeko orduan (posta bidezko inkestan aldagai honen inguruan bildu dugun informazioak erabakigarria izan daitekeela esan digun arren).
- Inkestak ez bezala, eta Euskalerrria Irratia eta ARGIA kenduta, inork ez du bestelako tokiko hedabiderik aipatu.

Puntu hauek ikusita, arestian aipatu ez dugun aldagaia bertaratzea ezinbestekoa zaigu. Egungo nafar euskaldun gehiengoaren (baita gure elkarriketatuen kasuan ere) bizilekua hiria da. Izan ere, Nafarroako euskaldun kopuru handiena Iruñerrian bizi da (bai, hiri erdaldunean) eta horrek galdera berriak eragiten dizkigu: Harreman sarearen elebidunen dentsitatea erabakigarria da? Eta hizkuntza gaitasuna? Baliteke ahozkoan oso abila ez denak euskaraz asko irakurtzea. Txepetxen ikaskuntzaren teoria absolutua ote? Euskarazko hedabideekiko aldeko jarrera izatea horien kontsumoa ziurtatzen du? Kontua korapilatuz doa.

Edukiak

Bigarren atal honetan aurreikusita geneuzkan galderak narrazio ildo gisa hartuta, elkarriketatuek emandako iritziak laburtuko ditugu (nahiz eta askotan galderak bide ezezagunei eutsi izan).

1) Zertarako erabiltzen dituzu euskarazko komunikabideak? / Nolako edukiak kontsumitzen dituzu? Zergatik?

"Nik batez ere informatzeko baino baita entretenitzeko ere. Gutxiago dena den. Horretarako erdaldunak eskaintza hobea dute. Bai informatzeko. Gure gaiak edo euskararekin lotura duten

gaiak irakurri, entzun edo ikusteko batez ere (...) kultura, euskara, Euskal Herri mailako kontuak ... ez dakit, beste hedabideetan aurkitzen ez ditudanak." (Oskar Goldaraz)

"Informazioa jasotzeko. Hedabideak horretarako daudela iruditzen zait. Entretenitzeko badugu zinema, musika edo kirola. Bueno, baita hizkuntza ikasten jarraitzeko, hizkuntza ikas-tresna gisa edo oso erabilgarriak dira (...) Denetik entzuten, irakurtzen eta ikusten dut; gertaera arruntenetatik erreportaje bitxienetara. Ez dut fetitxerik." (Jokin Irigoien)

"Informatzeko, dudarik gabe. Entretenitzeko badaude beste moduak (...) batez ere politika eta gizartea, baita kultura ere. Nonbait erdaldunetan aurkitzen ez dudan informazioak dira." (Mikel Uharte)

"Nire kasuan entretenitzeko, kirolak bereziki. Hemengo kirolaren gaineko informazio gehiago dago. Halere, gai zehatzen inguruko informazio lortzeko ... ez dakit, adibidez Itoiz pantanoaren auzia. Kasu horretan gustatzen zait informazioa euskaraz bilatzea. Bai, beste ikuspegi bat eskainiko dute, erdaldunek eskainiko ez dutena". (Oihan Mendo)

"Ba denetarik, informatu eta entretenitu. Bai, dena eskaini behar dute hedabideek eta nik interesatzen zaidan edozein gai kontsumitzen dut. Egia da askotan euskarazkoak kontsumitzen ditudala erdaldunetan bila nabilen informazio edo albiste hori aurkitzen ez dudalako". (Bingen Amadoz)

"Informatzeko batez ere. Politika eta gizartea, beste hedabideetan, erdaldunetan diot, aurkitzen ez diren ikuspuntuak edo informazioak entzuteko. Halere bidaien frikia naizenez asko irakurtzen dut horien inguruan. Hori entretenitzeko da?" (Marta Txamorro)

2) Euskarazko komunikabideen eskaintza anitza behar du izan? Guztion gustuetara egokituta? / Albisteen esparru geografikoari dagokionez; tokikoak? nazionalak? estatalak? nazioartekoak? / Informazioaren gertutasuna oso garrantzitsua da?

"Bai noski, denetarik eskaini behar dute. Gure gizartea oso anitza da eta horri erantzuna eman behar zaio. Osoak behar dugu izan. Lokala, estatala, nazioartea berdin zait. Mundua bezain anitzak behar dugu izan. Tokikoa edo nazionala... dena da garrantzitsua, denak eragiten gaitu, ez gara irla isolatua (...) Bai oso garrantzitsua da gertutasuna, nonbait gure lurrarekin harremanetan edo lotzeko bidea da". (Bingen Amadoz)

"Baaai. Nola ez. Dena den hezitzaileak diren gaiei garrantzi gehiago eman behar zaie. Hori oso garrantzitsua da (...) Normalean hurbilenak eragiten digu gehien, baina ez beti. Hurbilekoaren berri izatea garrantzitsua da. Zenbait euskal komunikabidetan, harrigarria da zein maiztasun handiz kontatzen dizkiguten Madrilgo eta Bartzelonako berririk hutsalenak Euskal Herriko iparraldekoak alde batera utzirik." (Jokin Irigoien)

"Bai baina neurrian. Kantitatea baino garrantzitsuagoa da edukien kalitatea. Esan nahi dut ... ezin badugu dena egin ba ez dogu egingo ta listo. Ez da ezer gertatzen. Hamaika mierda egin beharrean hobe kopurua murriztea kalitatearen mesedetan. Denborarekin zabalduko ditugu edukiak (...) Gertutasuna segun eta nori galdetzen diozun; nire kasuan oso lokalak eta mamirik gabeko gaiak ez zaizkit interesatzen, nahiago ditut adibidez sakon landu diren nazioarteko auziak." (Marta Txamorro)

"Denetarik eskaini behar dute ... bai noski. Euskaldunak oso anitzak gara eta guztiontzako edukiak egon behar dira (...) Gertutasuna oso garrantzitsua da, oso. Gizakioi, orokorrean, gertuko kontuak interesatzen zaizkigu ez hemendik hamar mila kilometrotara gertatzen direnak ... nahiz eta askotan gudan eragin handia izan dezaketen. Konturatzen doaz pixkanaka hedabideak, egun Garak eta Berriak tokiko informazio gehiago eskaintzen dute horrexegatik hain zuzen ere". (Mikel Uharte)

Ahal duten neurrian bai, denetarik eskaini beharko lukete ... baino ezin baduzu hobe bakarrik ondo egin dezakezuna eskaintzea, ez dakit, pena ez ematearren edo kar-kar-kar (...) Niri gehien interesatzen zaizkidanak tokiko albisteak dira, gure herrialdean gertatzen direnak. Horiek ez badituzte euskarazko komunikabideek argitaratzen, nork egingo du?" (Oskar Goldaraz)

" Bai bai bai, noski. Gizarteak denetarik eskatzen du eta horretan murgilduko bazara eskaintza anitza behar duzu izan (...) Gertutasuna oso garrantzitsua da bai, gertukoa euskaraz ezagutzea. Niri gehien interesatzen zaidana bai gutxienez. Halere, Berriak adibidez nazioarteko gatazken inguruko erreportai oso onak egiten ditu, oso sakonak eta askok ez dugu kazeta hori nazioarteko informazioa eskuratzeko erabiltzen ... ezjakintasuna izanen da." (Oihan Mendo)

3) Euskal hedabideak hobe euskal mundura mugatzen badira? / Euskal hedabideak hobe Euskal Herriko informaziora mugatzen badira? / Gaiei dagokionez: Arinak? Sakonak? Espezializatuak?

"Ez. Arestian adierazi bezala, munduan gertatzen den guztiaz ikasi behar dugu; ezin gara mugatu geure zilborra begiratzera ... munduko guztiaz ikasi behar dugu (...) Nik sakonak nahiago ditut; berdin zait espezializatuak ala orokorrak diren. Halere, ulergarria da gai arinak jorratzea; azken

batean, komunikabideak hedatu ahal izateko horrelako gaiak beharrezkoak baitira." (Jokin Irigoien)

"Ez ez ez. Ez bata ez bestea (...) Estatu mailan murgildu behar dira, eragiten gaituelako. Gainera, hedabide interesantea izateko nazioarte mailako edukiak ere landu behar dituzu. Ezin gara endogamian erori, ez gara herri itxia, edo ez dugu herri itxia izan nahi (...) Niri gai sakonak gustatzen zaizkit, pentsaraztea eragiten gaituztenak. Pena da baino askotan tontakeriaz josita daude hedabideak, edo oso modu azalekoan landuak". (Oihan Mendo)

"Ez inondik ere. Hori bai, beti kalitatez egiten bada. Hemen ekoizten diren kazeta erdaldunek euskara soilik folklore gisa erabiltzen dute eta gu ez gara horretan jauzi behar (...) Niri gai sakonak gustatzen zaizkit, hausnarketara bideratzen direnak, kritikoak direnak eta horiek batzuetan faltan sumatzen ditut." (Marta Txamorro)

"Ez dut uste, mundua Euskal Herria baino askoz handiagoa da eta egun gainera dena hain globalizatua izanda orotariko informazioa eskaini behar dute hedabideek. Beste kontu bat da horretarako ahalmena edo aukera izatea (...) nik egia esan ez ditut gai sakonegiak kontsumitzeko ohiturarik baino beharrezkoak iruditzen zaizkit, nonbait hezitzaileak behar dute izan hedabideak". (Oskar Goldaraz)

"Gurean sakontzea normala da, bestela ez du inork egingo baino beharrezkoa dute kanpora irtetea, ez gaude bakarrik munduan (...) hombre segun zien momentutan baino orokorrean nahiago ditu gai sakonak, hausnartzekoak direnak. Zure buruari eragiteko baliogarriak direnak." (Mikel Uharte)

"Inondik inora ... eta askotan gure zilborrari begira eman ditugu urteak eta urteak eta bitartean beste askok euskaldunon irudia munduan saltzen, bueno saltzen, zikintzen. Gu izan behar gara saltzen abilak, eskaria dago gainera, Ameriketara adibidez (...) niretzat gai sakonak. Bia, hedabideak informatzeko bai, baina batez ere hausnarketa, galderak egiteko daude. Errealitatea zalantzan jartzeko." (Bingen Amadoz)

4) Edukiek interes publikoari edo publikoaren interesari erantzun behar? / Inoiz ezin izan duzu gustuko edukiak euskaraz kontsumitu?

"Nire iritziz, saltzen diren komunikabide pribatuek nahi dutena egin dezakete; logikoa da publikoaren interesa oso kontuan izatea. Komunikabide publikoen kasuan, berriz, interes publikoa

lehenestea da logikoa; publikoaren interesa baztertu gabe, jakina (...) Anitzetan gertatu zait. Baita gustuko edukiak "ordutegi txarretan" izatea eta gainerako guztia kirol izatea egun osoan EITBn, bereziki." (Jokin Irigoien)

"Buf, hori galdera. Betiko kontua da. Nik dena den, bat aukeratu behar bada zalantzarik gabe interes publikoa gailenduko nuke. Hombre, oreka lortzen bada hobe baino hedabideak kontsumitzaileak hezteko bitartekoak ere badira (...) Bai askotan ezin izan dut nahi ditudan edukiak euskaraz kontsumitu baino ... ez hainbeste euskaraz izateagatik baizik eta hedabide guztiek, ia guztiek, fokoa toki berdinean jartzen dutelako". (Oihan Mendo)

"Ia beti publikoaren interesa nagusitzen da eta badakigu, txerri bazka toki guztietan, porkeria hutsa. Guk propio diren edukiak ekoiztu behar ditugu, ez besteek egin dutenaren kopia kutrea. Bestela ez dugu etorkizunik. Hedabide pribatuek nahi dutena egin dezatela baino publikoek interes publikoa landu behar dute (...) Orokorrean ez, txerri bazka nahi badut bai, hobe Tele 5 piztea." (Marta Txamorro)

"Hombre, eskaintzen duzuna publikoaren interesekoa ez bada jai duzu, etorkizunik ez. Halere arriskutsua da publikoaren interesa soilik aintzat hartzea ... bestela badakigu, orokorrean telebasura deitzen den hori da arrakasta gehien duen edukia eta hori ez da hedabideek bete behar duten lana. Askotan, zoritxarrez, Euskal Herrian egiten diren edukiak, telebistan argi eta garbi dago, beste tokietan egiten denaren kopia pobreak dira eta oso irudi txarra ematen dugu (...) Bai, baino euskaraz kontsumitu ezin izan ditudanak hobe euskaraz egiten ez badituzte kar kar kar." (Oskar Goldaraz)

"Interes publikoa gailendu behar da bai ala bai, bestela badakigu zer emango diguten: ez dakit noren kuleroak, morboa morboagatik, hunkitu edo beldurtzen gaituzten irudiak, ezer azaltzen ez dutena irudiak gainera. Diru publikoa jasotzen duten hedabideetan gutxienez. Halere, nire irudiko txikitatik gai arinak eta azalekoak kontsumitzeko joera barneratzen digute. Mezua da: esaten dizudana jan eta ez egin galderarik (...) Nazioarteko informazio gehiago nahiko nuke. Egia da Berriak oso erreportaje onak egiten dituela baino ez dakit, mundu mailan edo Europan hartzen diren erabakiak hemen hartzen ditugunak baino askoz ere garrantzitsuagoak dira ... esan nahi dut, gure egunerokotasunean gehiago eragiten dute eta askotan ez gara horretaz jabetzen." (Mikel Uharte)

"Interes publikoari noski, baino publikoaren interesa alboratu barik. Oreka lortu behar dugu, erakargarriak, interesgarriak eta gainera hezitzaileak, zergatik ez (...) bai askotan, hutsune asko zeuden euskarazko hedabideetan baino pixkanaka horiek betetzen doaz eta aizu, lan handia egin

da eta nahiz eta asko falta den oraindik ere, egindakoaz harro egon behar dugu." (Bingen Amadoz)

5) Euskarazko telebistaren (ETB1 - Xalo TB) programazioa egokia da? Oso irudi etniko eta folklorikoa agian? / Euskarazko irratiaren programazioa egokia da? / Kazeta idatzien edukiak egokiak dira? / Ze eduki mota faltan sumatzen duzu?

"Etniko eta folklorikoa interesatzen zait, oro har. Gehienetan, interesatzen ez zaidana da kirolari eskaintzen zaion denbora tarte zabalegia, oso astuna (...) Soilik Euskalerrria irratia eta Euskadi irratia segitzen ditut. Euskalerrria irratikoa egokia iruditzen zait; Euskadi irratiaren, ordea, kirolei ordu anitz eskaintzen diete, nire gusturako gehiegi eta kazetei dagokionez ... bueno Berria, Argia, Aizu eta Elhuyar, oro har, bai (...) Elhuyarrek teknologia eta informatika tratatzen dituen arren, eguneroko aurrerakuntza zein gailu teknologikoez eta informatikoez jakiteko erdal hedabideetara jo behar izaten dugu." (Jokin Irigoien)

"Telebista nahiko folklorikoa da bai. Euskaldunon nortasun ideal hori mantendu nahian askotan folklorea edo topikazoetan erortzen gara. Azken finean zenbat euskaldun bizi dira gaur baserrietan? Hiritarrak eta anitzak gara eta hori agian ez da behar bezala islatzen (...) Irratiaren kasuan irudia ez da hain folklorikoa. Musika emanaldietan argi ikusten da hori (...) Kazetak ezta ere, denetarik daukate (...) edukien aldetik, lehen esan dudana, fokoa beste tokietan ere jarri behar dela." (Oihan Mendo)

"Telebistaren edukiak kenduta, gainontzeko hedabideen edukiak aproposak iruditzen zaizkit. Bai, anitzak dira, guztion gustuetara egokitu daitezke ... telebistan aldiz beno, bai folklore gehiegi, baserri gehiegi, kopia gehiegi ... irudimen falta handia ikusten dut. Nik propioak diren produktuak sumatzen ditut faltan. Bereziak egingo gaituztenak, ez besteen jarraitzaileak." (Marta Txamorro)

"Telebistaren edukiak bai, nahiko folklorikoak edo baserritarrak iruditzen zaizkit eta egungo euskal gizarteak ez du zer ikusi handirik mundu horrekin. Eta hori ez bada askotan beste kateetan egiten dena kopiatzeko joera dago (...) Irratiaren edukiak hoberenak iruditzen zaizkit, denetarik dago, ba informazioa, musika, kultura, esatari onak, gai sakonak, elkarrizketak. Oro har oso irrati ona egiten dela iruditzen zait (...) Faltan sumatzen dudana? Berezko ekoizpena, telebistan bereziki. Mundua euskaratik kontatu behar dugu, ez beste hizkuntza baten kopia eginez." (Oskar Goldaraz)

"Gizartearen isla dela iruditzen zait, batez ere telebistaren kasuan. ETBn ez dago sakontasunik, oso sinplea dela iruditzen zait ematen duten informazioa, tontotzat ... eta ETB1 katean folklorea eta kirola besterik ez. Hanka motz guztiz (...) Irratiek eta kazetek ematen duten eskaintza

orokorrean gustatzen zait, anitzak dira, informazioa ondo plazaratzen dute (...) faltan baino soberan, kirola batez ere. Futbol partida bat lan merkatuaren legean egin den azken aldaketa bezain garrantzitsua balitz saltzen dute. Pan y circo gurean ere." (Mikel Uharte)

"Hombre, ez dira izaten erakargarrienak telebistaren kasuan gutxienez. Jendeak orokorrean eduki sinpleak nahi ditu eta ETB1 horretan dabil. Gainera ETB etxean beti gaztelaniazko kateari garrantzi gehiago eman zaio eta hori nabaritzen da. Gainera, ETB1 oso publiko zehatzari bideratuta dago, besterik ez zuelako seguru baino egun euskaldunak anitzagoak gara eta hori ere kontuan hartu behar dute. Askotan trikitixa TB dirudi (...) Nik Euskadi Irratian urte askoz egin dut lan eta bai, anitzak ginen eta guztiei ahotsa emateko esfortzua egiten genuen. Eta kazetei dagokionez ba gauza bera, saiatzen dira kalitatezko produktu bat egiten (...) edukietan dauden hutsuneak asko dira oraindik ere baino publiko euskalduna handitzen den heinean beteko ditugula uste dut ... pentsa, bestean Lodosako paloteoa euskaraz egin zuten. Zoragarri." (Bingen Amadoz)

6) Euskalkien erabilerari dagokionez, zer diozu?

"Euskalkiak euskararen altxorrik preziatuena da eta zaindu behar ditugu. Uler dezaket euskara batuari garrantzi gehiago ematea baino euskalkiak ez dira behar bezala zaintzen (...) gainera, ez dakit zergatik ez diren hezkuntza sisteman txertatzen eta irakasten. Belarria ohitzen baduzu Euskal Herrian dugun hizkuntza aniztasunaz gozatzea oso aberasgarria litzateke." (Jokin Irigoien)

"Euskalkiekin barne guda bat daukat. Euskal gizartea gero eta anitzagoa bada hizkuntz bakarra behar dugu. Euskalkiak ez dira gehiegi erabiltzen baino nahikoa da. Ez dakit, normaltasuna lortzeko hobe hizkuntza bakarra erabiltzea, baino euskalkiak altxor bat dira eta bizirik mantendu behar dira edo eskoletan gehiago irakatsi". (Oihan Mendo)

"Nik baztandarra ezagutzen dut baino Baztanetik kanpo ez dut inoiz entzuten eta ez legoke gaizki. Euskararen magia dira euskalkiak eta sustatu behar ditugu, bai hedabideetan, bai irakaskuntzan ... edonon. Eta ez dugu egiten. Gero, behin galduta, orduan damutuko gara." (Marta Txamorro)

"Zaindu behar dira, noski baietz baino euskaldunak bateratzen gaituen hizkuntza euskara batua da eta hori gainontzekoen gainetik egon behar du. Tokian tokikoak direnak bai, erabil dezatela euren eskualdeko euskalkia, baino nazio izaera duten hedabideek hobe batua erabiltzea." (Oskar Goldaraz)

"Zuzena da, nahikoa, euskalkia bere esparruan eta batua gainontzekoetan. Bai, euskalkiak zaindu baino batua beti gainetik, azkenean batzen gaituena da." (Mikel Uharte)

"Erabili, erabili behar dira noski baietz, altxor zoragarria da baina beti ere batua batzen gaituen hizkuntza dela ahaztu gabe. Hori bai, horretan batasuna behar dugu. Denon artekoa da." (Bingen Amadoz)

7) Euskarazko hedabideen ildo ideologikoa agerikoa da? / Sinesgarriak dira? / Erdaraz ekoizten direnekin alderatuta?

"Gehienetan bai, baina hori ez da txarra jendearen heziketarako baliagarria bada. "Ildo ideologikoa" aipatzean alderdikieriaz ari bagara, ordea, hori ez dut kontsideratzen hezitzaile. Oro har, bai, sinesgarriak dira. Gehienak saiatzen dira egiari zordun jokatzeko. Soilik EITBren eduki batzuk kontsideratzen ditut alderdikieriaz zipriztindutakoak edo arinegiak hezitzailetzat hartzeko Euskarazko eskaintza duina iruditzen zait gaztelaniaz dagoen zabor izugarria ezaguturik." (Jokin Irigoien)

"Agerikoa da noski, hedabide guztiek duten moduan. Euskal zaleak dira nola ez eta hori nabaritzen da eta normala da. Gero ildo politikoa segun eta nork zuzentzen duen hedabidea (...) Guztiak bezala ez dira sinesgarriak. Ez da gure hedabideen arazoa ... informazioa beti subjektiboa da eta informazio oro ez da inozentea." (Oihan Mendo)

"Niri ez zait horren agerikoa iruditzen. Argi dago euskal zaleak direla eta euskaldunoi kalte egiten diguten kontuak salatuko dituztela baino hortaz gain ... orotariko iritziak aurki daitezke euskarazko hedabideetan eta hori oso positiboa iruditzen zait (...) bai, sinesgarriak dira. Zintzo jokatzeko dute, edo saiatzen direla iruditzen zait. Gaztelaniazko hedabideetan denetarik dago, gauza beldurgarriak eta oso produktu txukunak. Guztiarekin gertatzen den moduan, segun eta zeini galdetu halako erantzuna izanen duzu". (Marta Txamorro)

"Bai argi dago nondik doazen baino ez dut gaizki ikusten; hedabide guztiek euren ideologia erakutsi eta defendatzen dute eta ideologia hori etikoa eta zintzoa bada, zergatik ezkutatu behar? (...) hedabideak hedabideak dira eta beti arretaz eta jarrera kritikoarekin kontsumitu behar ditugu baino, orokorrean, nahiko sinesgarriak direla iruditzen zait, bai. Espainian egiten direnekin alderatuta are gehiago." (Oskar Goldaraz)

"Bai, oso agerikoa. Kazetetan batez ere. Telebistan anitzagoak direla iruditzen zait (...) gaiaren arabera ... euskal auzi politikoaren inguruan askotan oso informazio partzialak ematen dira, bi aldetatik diot. Nork bereari eusten dio beti autokritika erakutsi gabe. Erdaldunekin gauza bera gertatzen dela iruditzen zait." (Mikel Uharte)

" Bai, beti. Komunikabide publikoetan ere beti dago agintearen itzala, hedabide guztietan gertatzen den kontua da. Egia da halere ideologikoki gertukoak ditudan hedabideak kontsumitzen ditugula (...) sinesgarriak? beti hitzen tartean irakurtzen jakin behar da, kritikoak behar dugu izan, beti. Egi osoaren jabe zarela uste baduzu, buuu, beldurgarria. Informazio oro interes bati erantzuten dio, ezin ahaztu, nahiz eta interes hori zilegi izan (...) erdaldunen inguruan gauza bera diot, berdin berdin." (Bingen Amadoz)

8) Euskal Herriko pluraltasuna erakusten dute? / Euskaldunen pluraltasuna erakusten dute?

"Oro har, bai. Alde horretatik ez nahiz kexu." (Jokin Irigoien)

"Ez nuke esango. Uste dut oso bideratuak daudela kontsumitzaile tipo batentzat. Esan nahi dut, Euskal Herria mailan denetarik dago eta multzo hortik bakar batzuk baino ez dira erakusten (...) baino euskaldun taldeari dagokionez bai, euskaldunen pluraltasuna erakusten dute." (Oihan Mendo)

"Nik baietz esango nuke, hori iruditzen zait bederen. Bai, ez dute inor baztertzen." (Marta Txamorro)

"Ez dakit ba ... askotan iruditu zait soilik Euskal Herriaren gizartearen multzo bakar baten errealtatea islatzen dutela, osoa izango balitz bezala eta hori ez da zuzena, nahiko sektarioa iruditzen zait. Nonbait belarriak aurpegitik kendu eta gure gizartearen aniztasuna aintzat hartu eta islatu beharko lukete." (Oskar Goldaraz)

"Bai orokorrean bai ... euskal hiztunen pluraltasunari dagokionez ez hainbeste. Askotan euskalduna guztiak patroi berekoak bagina bezala irudikatzen gaituzte." (Mikel Uharte)

"Baietz esango nuke; izan ere euskaldunen nolabaiteko joera mankomuna daukagu, zaila da eskuin faxista euskaldun hiztunik aurkitzea ezta? Baina, gizartea beti hedabideen aurretik doa eta oraindik hedabideek ez dute aniztasun hori behar bezala jaso, baina asko aldatu da euskal gizartea eta egunetik egunera aurrerakoiagoak gara edo hala ikusten dut nik. Hedabideak egokitu behar dira." (Bingen Amadoz)

9) Arlo identitarioari garrantzi gehiegi ematen zaio? / Euskaldunen ideologia aniztasuna erakusten dute? / Euskarazko komunikabideak politikoki lerrotuak daude?

"Inguruko identitateak jorratzen dituzten komunikabideekin alderatuz gero, ez. Logikoa iruditzen zait zalantza hori izatea pertsona adimentsuen artean; baina galdera horretan inguruko identitate nagusiek eragindako presioa eta konplexua daudelakoan nago. Oro har, bai. Halere, EITBn sumatzen da joera arras nabarmena komunikabide publikoak direla kontuan izanik (...) Bai. Lehen adierazi bezala, normala da komunikabide pribatuen kasuetan. Kezkagarria kontsideratzen dudana da komunikabide publikoak hain ildo politiko zehatzen arabera jokatzeara". (Jokin Irigoien)

"Zer da identitatea? Ez dut argi zer den euskal identitatea. Baina hedabideetan agian bai, euskal zaleak dira eta lehen esan dudan moduan euren publikora moldatzen dira (...) honetan bai, tertulietan adibidez denetarik dago, ez dut uste inori atea ixten zaionik. Bai, lerrotuak egon daitezke baina ez zait oso agerikoa iruditzen ... zera, esan dudana, ez diote inori ateak ixten." (Oihan Mendo)

"Baliteke baina normala ikusten dut; euskarazko komunikabideek euskaldunon identitatea aldarrikatzeko, sustatzeko edo gutxienez hemen gaudela esateko lana bete behar dute baita ere (...) ideologia politikoari dagokionez agian hanka motz dabilta, baliteke abertzaletasunaren pisua gehiegizkoa izatea eta askotan euskaldun guztiak abertzaleak ez direla ahazten zaie."

"Bai, euskaldunon identitatea aldarrikatzeko bitartekoak dira, beste tresna bat. Halere batzuetan ahaztu egiten dute euskal hiztun guztiak ez direla abertzaleak eta horretan tematzea kontsumitzaile potentzial horiek euskarazko hedabideengandik aldentzea eragin dezake. Ez dakit, hipotesi hutsa da baina baliteke (...) lerrotuak bai, hedabide guztiak bezala. Ez gara gu salbuespena izango." (Oskar Goldaraz)

"Bai, nire iritziz bai. Nire nortasuna zein den argi daukat baina ez dira identitate guztiak berdin islatzen. Abertzaletasunetik haratago badirudi ez dagoela tokirik eta Euskal Herria mailan asko dira euskaldunak eta ez abertzaleak direnak." (Mikel Uharte)

"Ematen zaio bai baina normala da joder. Identitatea eta euskara oso lotuta daude. Euskaraz egitean zurea egiten ari zara eta hori hedabideetan ere nabaritzen da. Hori da gure ikurra ezta? euskara. Halere askotan topikoetan erortzen dira komunikabideak eta euskaldunak bertsoak, jotak edo txikitoak baina askoz gehiago gara eta hori islatzeko esfortzua egiteke dago (...) euskara denona izan behar du, ez soilik abertzaleena eta Nafarroan oraindik euskara gatazka iturri da." (Bingen Amadoz)

Erabilgarritasuna

1) Zergatik kontsumitzen dituzu euskarazko komunikabideak? Balio instrumentala? (erabilgarria, praktikoa) edo Balio integratzailea? (euskalduna, gurea, herria) Biak?

*"Biengatik bai, baino aitortu behar dut balio integratzaileak garrantzia handia duela nire kasuan."
(Jokin Irigoien)*

"Gaur egun gure nortasuna mantentzeko tresnak dira baino helburua instrumentalagoa izatea lortu behar dugu. Egundoraindik ez, integratzaileak dira baino behin hori lortuta praktikoa behar duzu izan (...) inoiz euskarazko komunikabideak euskaraz eginda daudela ahaztuta normal kontsumitzen baditugu ... ba hori lortu dugu!" (Oihan Mendo)

"Nire kasuan militantzia kutsu handia dago hautu horretan bai, hala da. Integratzailea bai. Halere, askotan erdaldunetan aurkitzen ez ditudan albisteak edo gertaerak ... ez dakit, torturen kasuak adibidez, euskarazko komunikabideetan bilatzen ditut eta hor ez dago militantziarik, informazio bila noa." (Marta Txamorro)

"Biak esango nuke, informatzeko ere asko erabiltzen ditut eta bide batez laguntzen diet edo ezta? Gainera ba bai, nire burua talde baten barruan kokatzeko ere baliogarriak zaizkit, zergatik ez." (Oskar Goldaraz)

"Biak dira garrantzitsuak baino zure hedabide hautuan badakizu nora hurbiltzen zaren ez? Esan nahi dut, askotan militantzia dela eta kontsumitzen ditugu euskarazko hedabideak ... askotan gainera beste ikuspegi posiblerik egongo ez balitz bezala." (Mikel Uharte)

"Biak aldi berean bai ... argi dudana da euskaraz bizitzen laguntzen gaituztela eta hori oso garrantzitsua da." (Bingen Amadoz)

2) Euskaldunontzat elementu bateratzailea/giltzarri dira? / Euskaldunon identitatea sendotzeko bitartekoak dira? / Euskaldunon hiztun komunitatearentzat beharrezkoak? Eta hizkuntzaren normalizaziorako?

"Giltzarri hitza handiegia iruditu arren, egungo gizartean garrantzitsuak direla aitortu behar dut. (...) Bai, jakina. Euskaraz elkar ulertu ahal dugula erakusteko balio duten neurrian, bai. Horrez gain, geure kulturaren anitz informazio eta ezaugarri hedatzeko baliagarriak dira. Beharbada, orain dela urte batzuk ez ziren beharrezkoak; gaur egun, ordea, hedabide horietako baten bat desagertuz

gero, ordezkoren bat sortzea ezinbertzeko joko genuke (...) Oro har, bai. Baliagarriak eta eragingarriak direla argi dago; halere, beharrezkoak diren zalantza dut. Gaur egun, ordea, heziketan izan dezaketen garrantziagatik gomendagarriak dira". (Jokin Irigoien)

"Bai guztiei. Dударik gabe. Ezinbestekoa. Nahiz eta askotan ez ditugun kontsumitzen. Bueno baino kontsumitzeko aukera edo eskubidea behar dugu izan, nahiz eta gero ez egin." (Oihan Mendo)

"Zalantzarik gabe, euskaldunontzat elkargune dira hedabideak. Oraindik ez euskaldun guztientzat baino ezagutza eta erabilera handituz doan heinean bai, elkargune garrantzitsua bilakatuko dira. Elkargunea esan nahi dut gure identitatea berresteko edo (...) Bai, nahiz eta askok ez erabili komunitatearentzat eta hizkuntzaren normalizazioarentzat beharrezkoak dira." (Marta Txamorro)

"Bai noski, hemen ez dut inolako zalantzarik. Beharrezkoak baino ezinbestekoak dira, bitalak esango nuke." (Oskar Goldaraz)

"Bai badira. Hitzunak batzeko tresnak dira eta komunitatearentzat ere beharrezkoak dira (...) identitatearen kasuan ez dut horren argi. Zer da euskaldun identitatea? Euskarak, hizkuntzak batzen gaitu baino hortaz gain ez dakit zerk egiten gaituen euskaldun. Oso anitzak gara, gero eta gehiago gainera. Hori, euskara da berezi egiten gaituen gauza bakarra, euskararik gabe ze nolako Euskal Herria izango litzateke hau?" (Mikel Uharte)

"Noski baietz, oso beharrezko dira hedabideak hizkuntzarentzat ... ikasteko, komunikatzeko, batzeko, normalizatzeko ... bai bai, ezinbestekoak." (Bingen Amadoz)

3) Euskarazko hedabideen gaitasun ekonomikoa nahikoa da? / Nork bermatu beharko luke hedabideen bideragarritasun ekonomikoa? Administrazioek? Kontsumitzaileek? Eragilea Pribatuek?

"Nire iritziz ez. Kasu gehienetan, administrazio publikoek ez dituzte laguntzen hizkuntzak eta hiztunek behar adina; inguruko identitate nagusiek eragindako konplexuengatik euskarak eta euskaldunok ez dugu jasotzen behar dugun tratamendua (...) Komunikabide publikoen kasuetan, administrazioek bermatu behar dute diru hutsunea. Komunikabide pribatuen kasuetan administrazioek lagundu behar dute baina kontsumitzaileen eta eragile pribatuen gain egon behar da bermea." (Jokin Irigoien)

"Handitu behar da gaitasun hori. Administrazioak egin behar du batez ere. Euskaldunen

eskubideak administrazioak bermatu behar ditu eta informazioa jasotzeko eskubidea hor dago. Gainera horrela kontrol publikoa mantenduko genuke. Teorian hori defendatzen dut, gero badakigu zer egiten den." (Oihan Mendo)

"Argi dago baliabideak oso eskasak direla, orokorrean diot. ETB1 katearen kasuan ez dago diru arazorik baino halere audientziak oso tristeak dira. Dirua izanda ere ez baduzu ganorazko edukiak egiten jai duzu. Baina bai, tokikoak batez ere lur gorritan daude eta hor administrazio publikoak sartu behar dira. Euskaraz bizitzeko eskubidea dugula diote ezta? Ba berma zazue eskubide hori. Ea, kontsumitzaileak eta eragile pribatuak ere garrantzitsuak dira baina dirurik ez dutenek ere eskubide osoa dute informazioa jasotzeko." (Marta Txamorro)

"Diru gabezia latza da eta askotan ere administrazio publikoen axolagabekeria lotsagabea izan da, zer esan orain arte Nafarroako Gobernuan egon direnak egin duten kaltea, nahita gainera. Joe, azkenean gure eskubidea da, legez aitortua, euskaraz bizitzeko eskubidea diot eta hor hedabideak daude. Nire irudiko formulari egokiena mistoa, bueno hirukoitza litzateke, ba administrazio publikoa, kontsumitzaileak eta eragile pribatuak batera jardutea euskarazko hedabideen alde." (Oskar Goldaraz)

"Hasieran botere publikoek esku hartu beharko lukete baino gero kontsumitzaileek mantendu beharko dituzte hedabideak, batez ere horien askatasuna erdiesteko. Bestela badakigu, nolako Gobernua boterean halako hedabideak." (Mikel Uharte)

(Bingen Amadoz)

4) Etorkizunari begira jendeak gehiago erabiliko ditu?

"Interes publikoa eta publikoaren interesa egoki uztartzen dituzten komunikabideak gehiago erabiliko direlakoan nago." (Jokin Irigoien)

"Erronka oso handia da. Hain modu azkarrean mugitzen eta aldatzen den gizarte honetan dagoeneko dauzkazun kontsumitzaileak mantendu behar dituzu eta gero, euskara normalizatzen den neurrian ba berriak lortu. Teknologia berriak hor daude ere laguntzeko (...) independentziak ere ez du ezer ziurtatzen." (Oihan Mendo)

"Ez dakit zer esan, bai ezagutza gora doa eta horrek kontsumitzaile gehiago egotea ekarri dezake baino ez da formula matematikoa. Ezagutzak ez du erabilera ziurtatzen eta tokian tokiko errealitate soziolinguistikoak errotik baldintza dezake hedabideen hautua. Bikote mistoak, Nafarroan hain

ohikoak direnak. Bata euskalduna bestea ez diot. Batek ez badu euskara ezagutzen erosiko duten egunkaria erdalduna izanen da, edo telebistan ikusten duten programa. Zaila da iradokizunik egitea." (Marta Txamorro)

"Ni baikorra naiz, Nafarroan batez ere. Azken urteetan aurrera pausu asko eman ditugu eta asko emanen ditugu oraindik ere. Hori bai, hedabideek euren eskaintzaren gaineko hausnarketa sakona egin behar dute bizirik jarraituko badute. Gainera egun hedabideak kontsumitzeko moduak izugarri aldatu dira eta horiei ez badira behar bezala egokitzen akabo." (Oskar Goldaraz)

"Ba ez dakit zeren egun ezagutza zabaldu den arren euskara normalizatua egotetik oso urrun dago. Teknologia berriek aukera paregabea eskaintzen digute baina webean besterik ez badugu euskara erabiltzen, akabo betiko ... gainera ez dakit, baino badirudi esfortzu handia jartzen ari garela webetan eta sare sozialetan euskara egoteko eta gero kalean edo familian egunetik egunera gutxiago erabiltzen da. Ez du inolako zentzurik." (Mikel Uharte)

"Euskaldunon kolektiboa handitzen den heinean kontsumitzaileak ere gehiago izango dira. Hori da gutxienez, nik orain arte ikusi eta bizi izan dudana eta joera hori mantenduko dela uste dut, bai. Zergatik ez? Ea, egia da komunikabideen mundua nik gaztetan ezagutu nuenarekin alderatuta oso bestelako kontua dela baino interneten eta horietan euskarazkoek oso ondo moldatzen ari direla iruditzen zait. Bai, itxaropentsua naiz." (Bingen Amadoz)

Laburpen gisa

Gure elkarrizketatuek, oro har, egunero kontsumitzen dituzte euskarazko komunikabideak (nahiz eta horietatik guztiek ez erabili euskara bere egunerokotasunean); inkestaren emaitzekin ikusi dugun moduan ere, *Berria* eta, batez ere, *Euskalerria Irratia* zein *Euskadi Irratia* dira gehien kontsumitzen diren hedabideak (beti ere, gaztelaniazkoak baino neurri txikiagoan, orokorrean). Inkesten emaitzetan ikusi dugun moduan gure elkarrizketatuek ere informatzeko (batez ere) eta entretenitzeko erabiltzen dituzte euskarazko komunikabideak. Izan ere, guztiek azpimarratu dutenez, informazioa '*euskararen ikuspuntutik*' ezagutzea asko baloratzen dute, bai eta '*gure*' gaiak direnak ezagutzeko bitartekoak izatea ere.

Informazioen gertutasuna ere oso garrantzitsua da elkarrizketatuentzat eta gertutasun horren bila maiz hedabide erdaldunetara jo behar dutela azpimarratu dute; halere, haien iritziz euskarazko hedabideek ez dute zertan euskara eta Euskal Herriarekin lotura duten gaiak jorratzeari mugatu (gure mugetatik at gertatzen den guztia eragiten baikaitu, asko gainera). Gai horiek gainera,

zenbat eta sakonagoak orduan eta hobe. Buruari gogor ekitea oso gustukoa omen dugu euskaldunok.

Eskaintzari dagokionez asko dago hobetzeke. Batetik, edukien kalitatea dago. Gure elkarrizketatuek behin baino gehiagotan aipatu dutenez *'hobe kalitatea kantitatea baino'*. Bestetik, edukien nolakotasunak ere kritikak jaso ditu (bereziki telebistan). *'Folklore gutxiago eta hezitzaileak diren eduki gehiago'* egotea aldarrikatzen dute. Bukatzeko *'interes publikoa vs publikoaren interesa'* borroka daukagu. Auzi horren aurrean argi daukate gure elkarrizketatuek: interes publikoa gailendu behar da, bereziki hedabide publikoetan. Ez hori bakarrik, euskarazko hedabideen edukiak berezkoak izatea (ez besteen kopia hutsak) nahitaezkozat jotzen da, nonbait *'mundua euskaratik kontatu behar dugu'*. Inkestan ikusi dugun moduan, komunikabideen artean irratia da arrakasta gehien daukanak, telebista, aldiz, kritikatuena da.

Zer egin euskalkiekin? Bi ideia dira gehien errepikatu direnak; batetik, euskalkiak zaindu eta bizirik mantentzearen beharra eta, bestetik, euskara batua hedabideetan nagusitasuna izatearen premia, herria batzeko tresna baita. Euskarazko komunikabideen ildo ideologikoa (oraingoan ere) agerikoa dela azpimarratu dute parte hartzaileek eta erakusten duten pluraltasuna (orokorrean) zintzoa dela baieztatu dute.

Sinesgarriak ote? Batzuen aburuz, hedabideak diren heinean, ez. Beste batzuen ustez, egiten duten lana aintzat hartuta bai, nahiko sinesgarriak dira. Eremu identitarioari zein abertzaleari normala den garrantzia ematen zaie, nahiz eta zenbait elkarrizketatuen ustez horrek gure hedabideei kalte egiten dien (euskaldun kontsumitzaile potentzialen kopurua murrizten omen du jarrera horrek).

Euskarazko komunikabideen baliorik handiena? Berriz ere integratzailea, dudarik gabe. Bai, helburua izaera integratzaile horri inoiz instrumentala gailentzea izango da baino denbora beharko dugu horretarako. Elkarrizketen azken zatiak inkestaren emaitzekin bat egiten du: hau da, euskarazko hedabideak euskaldunontzat giltzarri bitartekoak dira, bai eta hiztun komunitatearentzat beharrezkoak ere.

Hizkuntzaren normalizaziori dagokionez ezinbestekoak, etorkizunean gehiago kontsumituko dira (kontsumitzaileen eskarrietara egokitzen diren bitartean), egun duten gaitasun ekonomikoa oso eskasa da eta gabezia horren gaineko ardura erakunde publikoek hatu behar dute (noski, horrek hedabideen sinesgarritasuna kaltetzen ez badu).

5. ONDORIOAK

Ez gara gehiegi luzatuko azken puntu honetan; behin testuingurua, marko teorikoa eta metodologia azalduta, eta egin diren posta bidezko inkesta zein elkarrizketa sakonen emaitzak ezagutu ostean, informazio hori guztia nahastu eta Nafarroan diharduten euskarazko hedabideei mesedegarria, baliogarria izan dakieken 'ondorio' zerrenda plazaratuko dugu, beti ere, ikerlan hau burutu bitartean sortu zaizkidan ideiak eta hausnarketak argitara eman gabe utzi barik.

Nafarroa anitza da, oso. Estatu mailan dauden herrialdeen artean anitzena ez bada, anitzenetarikoa. Identitateak, koloreak, hizkuntzak, paisaiak, ideologiak, natura, alderdi politikoak, kultura, dantzak, ikuspuntuak, historia, erlijioa ... dena da anitza gure erreinu zaharrean, baita euskarazko hedabideekiko euskaldunek dauzkaten iritziak eta jarrerak ere.

Euskarazko hedabideek Nafarroan hazteko duten tarte itzela da; izan ere, egun, nafar euskaldunen erdiak baino gehiago ez du euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohiturarik eta hori iraultzea hedabideen xede nagusia behar du izan. Nola baina? Nola bereganatu kontsumitzaile potentzial horiek? Zer eskaini behar diegu? Non eragin behar dugu hedabide hautu horiek eraldatzeko? Zein da gakoa?

Gure ikerlanean egindako araketa aintzat hartuta ondoko baieztapenak egin ditzakegu:

- Txepetxen ezagutzaren teoria (ezagutza, erabilera, motibazioa) ez da aplikagarria (%100ean bederen) hedabideen hautuari dagokionez; bai, euren egunerokotasunean euskaraz bizi direnak euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura handiagoa dutela ondoriozta dezakegu, baina, egia da baita ere euskaraz bizi ez diren askok ere euskarazko komunikabideak kontsumitzen dituztela (egun gainera gero eta modu indibidualagoan gauzatzen da media kontsumo hori) eta, alderantziz, euskaraz bizi eta gehiegi kontsumitzen ez dituztenak ere egon badaude. Hala, euskararen erabilera hain zabala ez den eskualdeetan euskarazko komunikabideak uste baino gehiago kontsumitzen direla ondoriozta dezakegu. Ez hori bakarrik, askotan, bere hizkuntza 'baztertua' dela ikusten duen hiztuna ahalegin handiagoak egingo ditu euskarazko hedabideak hautatzeko orduan.
- Hizkuntza gaitasun erlatiboa eta hiztun sare elebidunaren dentsitatea nolakoa hedabideen hautua halakoa? Ez gure kasuan. Nafarroako euskaldunen gehiengoa Iruñerrian bizi da, hots, eremu erdaldun eta hiritarrean. Horietatik gehiengoa erdaraz euskaraz baino arinago

mintzatuko da eta euren gertuko harreman sareetan euskaldunen kopurua ez da oso zabala izango; halere, Nafarroako euskaldunek euskarazko komunikabideak kontsumitzeko ohitura dutela baieztatzen dute. Hori bai, beti ere erdaldunak baino gutxiago. Gauzak horrela, tokian tokiko errealitate soziolinguistikoak ez da euskarazko hedabideen kontsumoaren nondik norakoak azaltzeko aldagai nahikoa.

Bi puntu horiek aintzat hartuta, zeintzuk dira euskarazko hedabideek hobetu, landu, aldatu edo berrantolatu behar dituzten kontuak?

1) **Edukiak:** Irratia da kontsumitzaileen gustukoen hedabidea, zalantzarik gabe; atzetik *Berria* dator eta kritikatuena telebista da. Irratia omen da edukirik anitzenak, egokienak eta erakargarrienak eskaintzen dituen euskarria.

Zer sumatzen dute faltan Nafarroako euskaldunek? Batetik, **Nafarroako gertuko informazio gehiago egotea**. Izan ere, gertuko informazioei lehentasuna emateko joera errotuta dago, oso eta hor arrazoi praktikoak zein sinbolikoak nahasten dira. Kontsumitzaileek euren egunerokotasunean eragin dezaketen albisteak bilatzen dituzte, bestera esanda, ukigarriak direnak.

Bestetik, sakonak eta hausnarketarako baliogarriak eta zintzoak diren informazio landuak jasotzea eta, bukatzeko, **gainontzeko** (edo Euskal Herritik kanpo dauden) **hedabideen produktuen kopia hutsak ez egitea** (bereziki telebistaren kasuan). Gurea den ekoizpena aldarrikatzen dute kontsumitzaileek, gurea den ikuspegia, gurea den hitza, gurea den kazetaritza azken finean. **Bestera esanda, mundua euskaldunon begietatik, ahotik kontatua izatea nahi dugu kontsumitzaileek.**

Hortaz gain, folklorea eta 'trikitixaren' hedabidea zokoratu eta egungo euskal gizartearen pluraltasuna erakusten duten edukiak landu behar dira, are gehiago Nafarroaren kasuan. **Denetarik eskaini behar dute? Bai noski, beti ere edukien kalitatea bermatzen bada.** Euskal publikoaren motibazioak arras anitzak dira eta, ondorioz, funtsezkoa litzateke komunikabideen eskaintza ahalik eta osoena izatea. Ezin ahaztu dena den, **interes publikoa publikoaren interesaren gainetik egon behar du** (publikoarena arbuiatu barik); egokiena bien arteko oreka lortzea da baino horretarako, nonbait, **hezitzaileagoak diren edukiak sortu** eta zabaldu behar dira 'txerri bazkak' diren edukien kontsumoa behera egin dezan. Teorian guztiok gorroto dugu 'txerri bazka' baino kontsumo indizeek bestelako egitatea marrazten dute.

Berdin dio, euskarazko hedabideek **gainontzekoetan aurkitzen ez diren berriak zein ikuspuntuak jaso behar dituzte**, horiek baitira kontsumitzaileek baloratzen dituztenak.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe laga euskarazko hedabideen alde egiten duen egitatea, hots, **sinesgarriak direla** (eta hori, egun kazetaritzak bere osotasunean bizi duen sinesgarritasun krisia ikusita harro egoteko moduko kontua da).

